

ITSASU ITXASSOU

10

HERRI ALDIZKARIA **AZAROA 2023** NOVEMBRE BULLETIN MUNICIPAL



Irailean ginen eta bero sapa gorriak jasan genituen.

Urrian itsas xori batzu pentze berdetan, itsaso urdina galdu balute bezala.

Azaroan gerezi ondoak lore xuritan

Noiz beraz elur lumak eta hotz idorrak ?

Nous avons subi en septembre des journées de chaleurs étouffantes. Des oiseaux marins se sont posés en octobre sur nos vertes prairies, comme s'ils avaient perdu de vue le bleu de l'océan. Les cerisiers ont des fleurs en novembre.

Et quand verrons nous les flocons de neige et la froidure hivernale ?

ÉDITO

Auzapezaren hitza



Logo berria gure herriarentzat. Marra beltzak inguru minguru mendi gainen haria iduri goiz argitan. Bi borobil gorri goren gorenean, sumatzen uzten dutela negu goitirietako iguzkia eta udaberriko gerezi zapoetsua. Baikorrenek dilindan musika doinua ? ITSASU hizki larriz eta berde hitzez jauntzia, lurralde hau bere hizkuntzaz eta euskaldun izateaz harro baita, geldigabeko indarrez eta suharki auspotuz agertuko baitira kolore biziagoak. Gure ikuspegi xumea baizik ez da hau, beste hainbeste balirateke. Txaloak Frantxoa Usandisagari, bere itsasuar izaitea marrazki huntan eskaini baitaiku.

Harri erauntsi bortitzarekin heldu zitzaigun 2023ko uda. Alorrek, hegatzek eta beribilek makur frango jasan zituzten bat bateko meteo zapartaldi hartan. Berehalako elkartasunak eta diru laguntzen menturek jabaldu zuten lehen egun haietako etsialdia. Uda gehienez ikusi ditugun iguzkiak eta euri uharren aldizkatzeak kanpoa berde mantendu du eta uzta askok zerbait eman dute. Ikusiko laster nola estimatuak izanen diren administrazioaren ganik laborantzako ekoizpen galtzapenak. Herritar guzietan luzarako gogoan atxikiko dute ekain aratsalde hartako haize basa nahasia eta harri kozkor haien zafaldi urrikigabea.

Herri aldizkari hunek helarazten daukizue gure herriko azken gora behearen oihartzunak. Hainbeste animazione uda eta udazken guzian elkarte kide bolondresen zernahi kemen ezartzen baitute itsasuarrak elkartu daitezzen eta goza dezaten elgarrekin hainbat kultur, elkartasun, besta eta lasaialditako ekitalditaz. Herriko Etxeko berriak ere irakurgai dituzkezue, astez aste ihardetsi baita bakarkako eskakizun guzietan eta aintzinarazi baitira proiektu nagusiak gazterien eta herritar guzientzat Itsasu sendutuko dutenak.

Mixel HIRIBARREN, Itsasuko auzapeza

Itsasuko Herriko Etxea - Mairie d'Ixassou
05 59 29 75 36 - Email : accueil@ixassou.fr
Site : www.ixassou.fr

Mise en page / Diseinua / Itsasuko Herriko etxea

**Impression sur papier recyclé :
Imprimerie Mendiboure - Arizmendi**

Un nouveau logo pour notre commune. Des lignes noires et courbes comme un fil de crêtes au lever du jour. Deux sphères rouges tout là-haut, qui laissent deviner l'astre au petit matin d'hiver et la cerise gorgée de saveur au printemps. Les plus optimistes y percevront aussi une note de musique. ITSASU en lettres majuscules s'est paré d'un vert austère qui révèle que cette terre basque est fière de son identité et qu'il faut sans répit souffler énergie et enthousiasme pour enchanter cette couleur. Nous avons livré notre lecture, mais mille autres sont possibles. Bravo à Frantxoa Usandisaga qui nous a offert l'expression de son âme d'itsasuar.

L'été 2023 était arrivé avec une très violente averse de grêle. Les cultures, les toitures et les voitures avaient été très largement impactées par le phénomène météo. La solidarité immédiate et les perspectives d'indemnisations avaient permis de surmonter le désespoir des premiers jours. L'alternance de soleil et de passages pluvieux sur toute la période estivale ont favorisé la végétation et contribué à atténuer les effets des dégâts sur les cultures. Reste à voir comment seront considérées les pertes de récoltes par le régime des calamités agricoles. Personne n'oubliera de sitôt cette soudaine tempête de vent et ces grêlons qui cognaient à vouloir tout casser.

Ce bulletin municipal vous renverra les derniers reflets de la vie de notre village. Beaucoup d'animations sur toute la période d'été et d'automne à l'initiative des nombreux bénévoles d'associations qui déploient tant d'efforts pour que les itsasuars se rencontrent et profitent ensemble de moments de culture, de solidarité, de détente et de fêtes. Des nouvelles de la commune également qui n'a pas eu de trêve dans ses décisions et ses actions pour répondre aux demandes du quotidien et faire avancer les projets qui feront d'Itsasu un village porté et partagé par sa jeunesse et ses habitants.

Mixel HIRIBARREN, Maire d'Ixassou



INTRAMUROS

Les nouvelles et événements d'Ixassou peuvent vous parvenir à toute heure. Il suffit de télécharger l'application intramuros sur votre téléphone portable sans oublier d'activer la notification.

<https://appli-intramuros.fr/>

Telekarga zazu aplikazione hori zure telefona mugikorrean. Herriko berri eta gertakari guzientzat jakinean izanen zira orenez oren.

AURKIBIDEA / SOMMAIRE

Editoriala / Édito

BERRIAK / ACTUALITÉS

Jende kondaketa baliosa, ximplea eta gerizatua / le recensement 2024	4-5
Ghislaine dendari ibiltaria Atekan / une couturière itinérante au centre Ateka	6
Emagintsa jartzen da Itsasuko herri erdian / Camille la sage-femme s'installe au bourg	6
Herriko etxeko harrera elkarten gelan jarriko da / accueil mairie transféré à la salle des associations	7
Balakiko obren baimena, eta enpresen hautaketa	7
Balaki : le permis accordé, les entreprises retenues et le début du chantier	7
Bigarren egoitzen bizitegi zergak gora / taxe d'habitation des résidences secondaires en hausse	8
Hiru errekurto hirigintza planari / trois recours au PLU d'Ixassou	9
Lasaigo oinezkoak Elizako bidean / marcher plus tranquille de Balaki au pont d'Ihauria	10
Ikertzen ari nora antolatu karriketako bideak / des aménagements en cours d'études autour du bourg	11
Udako bide kondaketak / comptage routier été 2023	11
Bizikleta ibilbideak egunerokoan / des voies cyclables pour mobilités du quotidien	12
Udan 10 ototarik 7 Ataitzetan sartzetik atxikiak / en plein été 7 voitures sur 10 dissuadées d'accéder au Pas de Roland	13
Bere bidean doan Baiona Garaziko treina / une locomotive qui va à son train	14
Oilomokoenekoa bidea : Goiz iluntzetan argiak / éclairage de la voie	15
Gerezi herriak badira denetan munduan / des villages de la cerise partout dans le monde	15
Bizikleta erosi aintzin enseatu / essayer le vélo électrique avant de l'acheter	16
Elkarten foroa arrakastatsua / le forum des associations un réel succès	17
Eskolaz kanpoko euskarazko aisialdi denbora / un temps périscolaire en euskara	18
Etxauri - Itsasu	18

HEZKUNTZA / EDUCATION

Ikasturte eder baten menturan / école communale, une bonne année en perspective !	19
Arrokagarai ikastola : Elgarrekin euskaraz biziaraz dezagun Itsasu / faisons vivre le village en euskara	20
San Josep eskola : Itsasuarren elkartasuna preziatzen burasoek	21
Des parents mobilisés qui apprécient la solidarité des itsasuar	

ELKARTE BIZIA/ VIE ASSOCIATIVE

Elkarteen aurkezpenak / la parole aux associations	22-31
--	-------

SOZIALA / SOCIAL

Gazteen aisialdiak / activités de loisirs jeunes	32
--	----

LABORANTZA / AGRICULTURE

Betisoak Itsasun	33
------------------	----

INGURUMENA / ENVIRONNEMENT

La réserve naturelle régionale sur Artzamendi, Iparla et Mondarrain	34
Urak ere zaindu behar dira / Focus sur la ressource eau	35
Diru laguntza bat euri ur berreskuragailu baten erosteko / une aide financière pour l'achat d'un récupérateur d'eau de pluie	35

EGUTEGIA/ AGENDA

36-37

ATZO ETA EGUNGO OIHARTZUNAK / ECHOS D'HIER ET D'AUJOURD'HUI


38-40

Le recensement 2024

Le recensement de la population : c'est utile, c'est simple, c'est sûr. Votre participation est essentielle, chacun de nous compte.

LE RECENSEMENT, C'EST UTILE

Le recensement de la population est un acte qui concerne tout le monde et qui profite à tous. C'est grâce aux données collectées lors du recensement de la population que les petits et grands projets qui vous concernent peuvent être pensés et réalisés. Le recensement permet d'établir la population officielle de chaque commune. Il fournit également des informations sur les caractéristiques de la population : âge, profession, moyens de transport utilisés, conditions de logement... et sert à comprendre l'évolution démographique de notre territoire et ajuster l'action publique aux besoins de la population. Ses résultats sont utilisés pour calculer la participation de l'État au budget des communes.



Comment se déroule le recensement sur Itxassou ?

Toute la population d'Itxassou sera recensée entre le 18 janvier et le 17 février 2024, dans le cadre des opérations de recensement de la population menée sous l'égide de l'INSEE (Institut National de la Statistique et des Études Économiques).

LE RECENSEMENT, C'EST SIMPLE

Un agent recenseur recruté par la commune d'Itxassou, muni d'une carte officielle, se rendra à votre domicile et vous remettra une notice d'information avec des identifiants pour vous faire recenser en ligne, en complétant un questionnaire concernant votre logement et les personnes qui y vivent.

Si vous ne pouvez pas répondre par internet, vous pourrez utiliser un questionnaire papier que l'agent recenseur viendra récupérer. En cas d'absence, il laissera un avis de passage. Pour faciliter son travail, **merci de répondre sous quelques jours.**

LE RECENSEMENT, C'EST SÛR

Vos informations personnelles sont protégées selon des procédures approuvées par la Commission nationale de l'informatique et des libertés (Cnil). Les réponses sont confidentielles et les statistiques produites anonymes. L'Insee est le seul organisme habilité à exploiter les questionnaires qui ne peuvent donc donner lieu à aucun contrôle administratif ou fiscal. Votre nom et votre adresse sont néanmoins nécessaires pour être sûr que vous n'êtes pas compté(e) plusieurs fois.

Dans le cadre des opérations de recensement de la population et des logements d'ITXASSOU qui se dérouleront du 18 janvier 2024 au 17 février 2024 sous l'égide de l'INSEE, la commune d'ITXASSOU recherche des agents recenseurs pour la réalisation de cette enquête.

Les personnes intéressées doivent adresser leur candidature (C.V + lettre de motivation) par courrier en mairie d'ITXASSOU ou par courriel à l'adresse suivante : population@itxassou.fr

Toutes les personnes ayant accès aux questionnaires (dont les agents recenseurs) sont tenues au secret professionnel.

Jende kondaketa baliosa, xinglea eta gerizatua

Jende kondaketa baliosa da

Jende kondaketaren ekintzak herritar guziak hunkitzen ditu eta denen probetxutan egiten da. Jende kondaketa horren emaitzeri esker dira sortzen eta obratzen egitasmo tiki eta handiak. Jende kondaketak finkatzen du herri bakoitz zenbat herritar baden. Ematen du baitaere ikuspegi zehatza herriko jendearen bizimoldeaz : adinak, lanbideak, garraio moldeak, bizitegi moduak... eta baliagarri da lurraldearen bilakaera demografikoaren argitzeko eta ekintza publikoak herritarren beharrei egokitzeko. Emaitzak erabiltzen dira Estatuak herriei ematen dien diru laguntzaren finkatzeko.

Jende kondaketa xinglea da

Herriko etxeak engaiatu duen inkestalari bat, ageri ofiziala duena, jinen zauzue etxerat eta eskutan utziko dautzue informazio txosten bat inkesta internetez betetzeko ezaugarri zehatzekin, bizitegiaren eta zuekin etxe berean bizitzen diren xehetasun eskaerarekin.

Internet bidez ihardesteko molderik ez baduzue, paperezko galdeketa utziko dautzue inkestalariak eta bera jinen zautzue berantago bila.

Etetik kanpoan bazinezte, utziko dautzue mezu bat. Inkestalariaren lana erretzeko, lehen bait lehen ihardestea gomendatua zauzue.

Jende kondaketa gerizatua da


Zuen emaitza pertsonalak gerizatuak dira CNIL erakundeari esker. Erantzunak isilpean egotekoak dira eta ezta distrikak anonimoak. INSEE da bakarrik baimendua galdeketen aztertzeko eta neholaz ere ez liteke administrazio edo fizikalitate kontroleri lotua izan. Zuen izen abizenak baitezpadakoak dira halaere, dudarik gabe jende bakoitza behin baizik ez dadin kondutan sartua izan. Galdeketan esku sartzea duten guziek, inkestalariak barne, isilpekotasuna legezkoa dute.

Nola iraganen da jende kondaketa Itsasun?

Itsasuko jendetza guziaren kondaketa eginen da 2024ko urtarrilaren 18tik otsailaren 17 arteko hilabete batean, INSEE erakundearen gerizapean.

2024ko urtarrilaren 18tik 2024ko otsailaren 17a arte iraganen da ITSASUko herriko jende eta bizitegi kondaketa. ITSASUko herria inkesta horren obratzeko langile inkestalarien engaiatzen ari da.

Interesatuak beren hautagaitza igorri behar dute (CV + motibazio gutuna) baitezpadako epea, ITSASUko herriko etxean postaz edo posta elektronikoz helbide honetara : population@itxassou.fr



Hamar urtez auzapezkoa Guillaume Berrouet 1860-1870
Extrait des écrits de Guillaume Berrouet, Maire d'Itxassou de 1860 à 1870

Atheratuya Mayatçaren 29an 1866an

Cartierrac	Etchiac	Familiac	Yendiac
Plaça	57	86	245
Panecau	16	22	88
Basseburu	16	32	107
Erroby	59	96	320
Içoquy	11	11	51
Guibelarte	48	68	262
Orcia	15	20	90
Guerasto	14	15	79
Berandotz	17	17	65
Olhassour	27	32	127
	280	399	1434

Ghislaine dendari ibiltaria Atekan

Dendari batek proposatzen ditu bere zerbitzuak ostirale guziz kokatuko baita Atekan herritarren beharrei ihardesteko.

Ghislaine Plaquevent anderea Heletan bizi da eta itzuliko herriko etxetan ibili da bere lan xedearan aurkezten. Formakuntza berezia egin du dendaritzan eta dendari ibiltari bezala bere kondu jartzeko asmoa agertu du. Hautetsiek berehala adierazi diote interesa pentsatuz herritarrek preziatzen ahalko zutela hurbileko zerbitzu hori.

Ghislaine, dendariak nahiko du jendeak eskatuko diotenari ihardetsi, azpildura edo urradura josteko, beste zernahi eskakizunen artean. Astean behineko tailer horrek sorkuntzari ere utziko dio lekua, ideiaz bete da baita Ghislaine trapu zaharren baliatzeko.



Une couturière itinérante au centre Ateka

Une couturière propose ses services à la demande en assurant une permanence ouverte aux habitants tous les vendredis au centre d'Ateka.

Madame Ghislaine PLAQUEVENT habitant à Helette, a démarché les mairies voisines pour présenter son intention d'installer un atelier couture « ambulant » et sonder notre intérêt à vouloir proposer ce service aux habitants. L'idée et l'initiative ont tout de suite intéressé les élu-e-s.

Ghislaine la couturière du vendredi à Ateka réalise des retouches à la demande, mais son petit atelier qui passera un jour de la semaine par village, proposera également des créations utiles à partir de tissus de récupération que les habitants pourraient lui apporter.



Camille la sage-femme s'installe au bourg Emagintsa jartzen da Itsasuko herri erdian

Emagintsa da ofizioz Camille Bernard. Lanbide hortan arizana da jadanik urte batzu Xubero aldean eta Donibane Lohitzunen. Itsasuko karrika erdian jarriko da 2024 urte hastapenean, Lordania eta Hamalaueniaren artean.

Lehen aspaldi emagintsak haur egiteko ziren gehienik baitezpadakoak. Gaurregun idekitzen dituzten gabinetetan adin guzietako emazteen ginekologiko behar orori ihardesteko gai dira.

Camillek badu formakuntza esperientziarik aski konfiantzaz hurbiltasunez laguntzeko Itsasu inguruko herritako emazteak.

Camille Bernard est sage-femme. Elle a déjà exercé son métier pendant quelques années sur le secteur de Soule et celui de Saint Jean de Luz. Elle prépare son installation pour le début d'année 2024 en plein centre bourg d'Itsassou, entre Hamalauenia et Lordania.

Il est loin le temps où les sages-femmes intervenaient seulement pour accompagner les mères qui accouchaient. Elles ouvrent aujourd'hui des cabinets pour répondre aux besoins de suivis gynécologiques réguliers des femmes à tous les âges de la vie.

Camille dispose d'une formation et d'une expérience qui permettront certainement d'assurer l'accompagnement de confiance et de proximité qu'attendent beaucoup de femmes d'Itsassou et des environs.



Herriko Etxeko harrera elkarten gelan jarriko da

Igogailu baten ezartzerat behartzen dute legeek elbarrituek lehen solairurat heldu behar duten eraikin publikoetan.

Itsasuko herriko etxean heldugarritasunaren obra horik hastekoak dira 2024ko urte hastapenean. Hilabete batzuek iraunen dute. Herriko etxeko harrera elkarten gelan kokatuko da, eraikinaren hego aldean.

Ondorioz, elkarte gela ez da obra garai hortan bilkura gela bezala baliatzen ahalko. Eskolen auzoan den herriko haurtzaindegi gela baliatzen ahalko da elkarte gelaren ordainez.



Accueil mairie transféré à la salle des associations

L'installation d'un ascenseur est imposée dans les locaux de la mairie pour répondre aux impératifs réglementaires d'accessibilité de la salle du conseil municipal qui se trouve à l'étage de la maison commune.

Les travaux devraient être engagés en début d'année 2024 et vont nécessiter de transférer pour plusieurs mois les bureaux d'accueil de la mairie dans la salle des associations dont l'entrée se trouve sur la façade sud du bâtiment principal.

Par conséquent, cette salle des associations ne sera plus disponible comme salle de réunion jusqu'à la fin des travaux d'accessibilité et de réaménagement de la mairie. La garderie municipale à proximité des écoles pourra transitoirement servir de salle commune de réunion.



Balakiko obren baimena, eta enpresen hautaketa

Balakiren berritze eta zabaltze obren baimena eskuratua izan da 2023 irailaren ondarrean.

Urriaren erdian zabaldu dute enpresa konsulta Herriko Etxeak eta Hemen arxitekta obra zuzendariak. 2023 urte ondarra aintzin ezagutuko dira obren egiteko hautatuak izanen diren enpresak.

2024ko urte hastapeneko lehen hilabetetan hastekoak dira obrak, eta ordutik harat Balakiko pilotalekuan ez da entzunen pilota hotsik.

Balaki : le permis accordé, les entreprises retenues et le début du chantier

Le permis de construire pour la réhabilitation et l'extension des bâtiments de Balaki a été accordé en septembre 2023.

La mairie et le maître d'œuvre Hemen architecture ont lancé la consultation des entreprises à la mi-octobre. Les opérateurs qui interviendront sur les travaux seront connus avant la fin de l'année 2023.

Le début des travaux devrait avoir lieu dans les tous premiers mois de 2024, et à partir de ce moment-là, la cancha ne sera plus accessible aux joueurs de pelote.

Bigarren egoitzen bizitegi zergak gora

Taxe d'habitation des résidences secondaires en hausse

Herriko kontseiluak bozkatu du gehiengo garbiz bigarren bizitegien takza emendatze gorenara, sinetsi gabe nahikoa izanen dela urte guziko alokairuari buzuz bideratzeko bigarren egoitzak.

Gobernuko dekretua agertu zen 2023ko agorrilaren ondarrean. Frantziako herri askotan etxe hutsek zerga berezia ordaindu beharko diote Estatuari 2024etik aintzina, egoitzaren zerga oinarriaren %17koa izanen da lehen urtean, eta %34koa bigarren urtetik aintzina. Dekretu berak baimentzen die herri horiei beren eremuko bigarren egoitzen bizitegi zergaren emendatu ahal izatea. Emendatze hori heltzen ahal da %60 erate, Euskal Hiri Elkargoko alokairuz tentsiopeko herri askok erabaki duten bezala.

Ez da gehiago auzirik gurea bezalako herrietan etxe hutsen zergaren deliberatzeko, 2023ko agorrileko dekretuaz geroztik. Jakina da zenbateko zerga izanen den eta nora joanen den zergaren uzta : azken bi urtetan bederen hutsak gelditu diren bizitegiek Estatuari ixuri beharko dute eskatuko zaien zerga neurria. Eta itxura guzuen arabera, zerga oinarri ertain batentzat, 200€ eta 400€ arteko zerga ordaindu beharko dute urtero.

Itsasuko herriko kontseiluak irailaren 26ko bilkura erabakigarrian eztabaidatu du bigarren egoitzen zergaren emendatzeaz. Dekretua agertu zen hastapen batean, %60 az emendatzen ahal zen zerga horrek hautetsien zuzurtzia kilikatzen zuen. Bainan aski laster gauzak zehaztu eta argitu dira. Bigarren egoitzen zerga emendatzeak herriak eskuratzen duen parte baizik ez du hunkitzen. Itsasuko herriak bizitegi zerga oinarriaren %9,68tan ezarria du aspaldian. Dekretuak bere %60eko emendatze ahalarekin, %15,48tarat upatzen du %9,68koa. Itxura guzuen arabera, 100 € eta 200€ arteko zerga gorakada bigarren egoitza ertain askorentzat !



Le conseil a voté majoritairement une augmentation maximale de cette THRS, sans être certain qu'elle sera suffisamment incitative pour favoriser la location à l'année d'une partie significative du parc des résidences secondaires.

Le décret gouvernemental est tombé à la fin août 2023. De nombreuses communes de France verront leurs logements vacants taxés par l'Etat dès 2024 à hauteur de 17% de leur base locative en première année et de 34% dès la deuxième année. Le même décret autorise ces communes à appliquer une augmentation de la taxe d'habitation aux résidences secondaires recensées sur leur territoire. Cette hausse peut aller jusqu'à 60%, comme l'ont instaurée de nombreuses communes de la zone déjà dite tendue de notre communauté d'agglomération CAPB.



La question de la taxation des logements vacants ne se pose plus pour les communes à partir de la publication du décret du mois d'août 2023. Les contributeurs de la taxe des logements vacants seront appelés à verser dans les caisses de l'Etat des taxes pour leur logement non habité depuis au moins deux ans, avec des montants qui iront de 200€ en première année à 400€ à partir de la deuxième année pour des bases de valeurs locatives moyennes.

Le conseil municipal d'Ixassou dans sa séance du 26 septembre 2023 a débattu autour de l'augmentation de la taxe d'habitation pour les résidences secondaires. L'augmentation possible de cette taxe jusqu'à 60% a commencé par imposer la prudence chez les élus. Mais, assez rapidement, les informations se sont précisées. L'augmentation possible ne concernerait que le pourcentage de taxe d'habitation collectée par la commune. Ce pourcentage est déjà fixé pour Ixassou à 9,68% de la base de valeur locative. L'augmentation maximale autorisée par le décret ramènerait la part communale à 15,48% de la base de valeur locative. Quelques 100€ à 200€ de montant THRS qui reviendraient dans les caisses de la mairie pour une recette communale qui pourrait être augmentée de quelques 25 000€.

Il reste à rappeler que ces augmentations de la taxe d'habitation sont encore loin de rattraper le niveau d'exigence et de fiscalité imposé aux locations à l'année.

Hiru errekurtsu hirigintza planari

Trois recours au PLU d'Ixassou

Errekurtsu guztiak Euskal Herriko Hiri Elkargoari zuzenduak dira, denek eskatzen baitute 2023ko maiatzaren 13ko delibero osoaren ezeztatzea. Itsasuko Herriko Etxearekin adosean, JR etchegaray-en zerbitzuek antolatzen dute Itsasuko PLUaren defentsa.

Itsasuko hirigintza plana baimendu du Hiri Elkargoko batzorde osoak 2023ko maiatzaren 13an. Araudi berriak legezkoak dira eta aplikatzen dira 2023ko ekainaz geroztik. Hiru errekurtsu badira herritarren ganik Paueko auzitegi administratiboaren aintzinean pausatua : bi errekurtsu auzitegirat, eta errekurtsu soil bat.

Xavier Larre-tiarrek ezadostasuna agertzen dute AB 157 lur zatian den gune erreserbatuarekin. Leku hori aintzin ikusia izan da Karrika Nagusiaren paraleloan idekiko litekeen sentzu bakarreko bidearen sar atera bezala baliatzeko, D249 departamenduko bidearen eta Urzumuko bidearen bide kurutzean.

René Membrède-tiarrek ezadostasuna PLUko 1 eta 2garren gune erreserbatuetan salatzen dute, lur zati hauk aintzin ikusiak baitira Sanoki Atekako aparkalekuari bide berriaren ideki ahal izateko eta aparkalekuaren handitu ahal izateko. Beren abokaten erranez « ... Membrède-tiarrek eskatzen dute gune erreserbatu horien kentzea, kanorerik ez baitute beren ustez, ezarriak izan baitira herri diagnostika txar baten ondorioz, eta ametsetako herri garapen baten asmoz... »

Gilbert Massonde-tiarren errekurtsu arrunta PLUko 4garren gune erreserbatuan finkatzen da « ... hain zuzen Ezpeletako Errepideko Irigoingibel OAP hiritartze proiektuak agertzen dituen bide berri eta eraikuntza kolektibo, erdi kolektibo edo bakarkako multzatuan... »

Jakin behar da gune erreserbatuak direla hirigintza planek (PLU edo PLUI) finkatzen dituzten erabilpenaren jabetza publikoak, bide, antolakuntza publiko, berde gune edo bizitegi programa batzuen garatzeko asmotan. Gune erreserbatuak mugatu proiektua gauzatu aintzin, eremu horrek ez du onartzen ahal finkatua den proiektuari egokitzen den obraz besterik.

Tous les recours sont adressés au président de la CAPB puisqu'ils exigent tous le retrait de la délibération communautaire du 13 mai 2023 qui approuvait à l'unanimité le PLU d'Ixassou. En accord avec la commune d'Ixassou, les services du président JR Etchegaray ont déjà engagé la défense de ces éléments de délibération du PLU d'Ixassou.

Le PLU d'Ixassou a été approuvé le 13 mai 2023 par la Communauté d'Agglomération Pays basque. Il est en application depuis juin 2023. Trois recours ont été déposés par des administrés auprès du tribunal administratif de Pau : deux recours contentieux et un recours gracieux.

Le recours contentieux des conjoints Larre conteste l'emplacement réservé n°6 sur la parcelle AB157. Il s'agit de l'entrée ou sortie de la voie de desserte principale à sens unique qu'il est prévu d'aménager en parallèle de Karrika Nagusia, au carrefour de la départementale D249 et de Urzumuko bidea.

Le recours contentieux des conjoints Membrède conteste les emplacements réservés n°1 et n°2 au profit de la commune pour la réalisation d'une voirie de desserte du parking public existant (Ateka) et de son extension. Selon leurs avocats : « ... les conjoints Membrède demandent l'effacement de ces emplacements réservés qui ne se justifieraient pas, car selon eux, ils reposent sur un diagnostic faux et des hypothèses urbanistiques irréalistes... »

Le recours gracieux des conjoints Massonde porte sur l'emplacement réservé n°4 et « ... plus précisément, l'OAP route d'Espelette-Irigoingibel qui prévoit la création, d'une voie de desserte, d'un cheminement piéton et cycles ainsi que l'édification de logements collectifs, intermédiaires ou individuels groupés sur la parcelle des conjoints Massonde... »

Il faut savoir que les emplacements réservés sont des servitudes instituées sur des plans d'urbanisme (PLU- PLUI), en vue de permettre la réalisation de voies, équipements publics, espaces verts, programmes de logements. En attendant la réalisation d'un projet, l'emplacement réservé limite la constructibilité du terrain qui ne peut plus recevoir de travaux non conformes au projet justifiant la servitude.




Lasaiago oinezkoak Elizako bidean

Aurtengo uda ondarraz geroztik, Elizako bidean bi sentsutarat ibiltzen ahal dira beribilak eta ezartzen ari dira hornikuntzak mogikortasun eztientzat ibilbidea segurrago bilakatzeko.

IDcités ko Ludovic Chaleroix rekin egin bide trafikoaren azterketek erakutsi dute Balakitik eskoletara Elizako bidearen garrantzia. Bide horren bazterreko egoiliar gehienek etxeak bide hegitik barnerago dituzte, eta beraz bide antolaketek abiadura moteldu behar dute eta oinezko ala txirindularientzat ibilbidea segurrago bihurtu.

Keima bide antolakuntzako teknikararien aholkuekin, bidearen hertsialdi edo zintzur bat entseatua izan da Balakitik Iguzkiarako bidean. Gisa bereko tinkaldia hartu behar luke bideak Soldatenetik Ihauria artean. Balakitik Ihauria arteko bidean, 1.40 metra zabalean errexina eta kolorezko harri xehez eginiko ibilbidea berezia liteke oinezkoentzat.

Helburu berdinekin, Elizako bide hortan berean, beste bide antolakuntza batzu balitezke eginik geroago. Gainerat, bisitarien beribilei bide seinaleek erakutsi behar lieke departamenduko bidetarik joatea Balakitik eliza- eskoletako auzorat.



Marcher plus tranquille de Balaki au pont d'Ihauria

Depuis la fin de l'été 2023, Elizako bidea a retrouvé le double sens et des aménagements sont en cours pour sécuriser au mieux la chaussée pour les mobilités douces.


Ce sont les études de flux de circulation accompagnées par le cabinet IDcités de Ludovic Chaleroix qui ont démontré le caractère structurant de la voie qui va de Balaki jusqu'aux écoles.

Les riverains sont tous installés plus ou moins en retrait de cette route étroite, et il convient surtout de contenir la vitesse et de sécuriser le trajet pour les piétons et les vélos.

Avec le conseil des techniciens de l'aménagement voirie (Cabinet Keima), une chicane / écluse a été testée et est en cours de réalisation sur la section de voie qui va de Iguzkian à Balaki.

Une bande pépète de couleur claire recouvrira la chaussée Elizako bidea sur 1.40m de largeur pour matérialiser l'espace dédié aux piétons, depuis Balaki jusqu'au pont de Ihauria.

Des aménagements ultérieurs seront envisagés sur cette même voie avec les mêmes objectifs. En outre, les panneaux indicateurs devraient inciter les véhicules de visiteurs à emprunter d'autres routes pour parvenir au quartier de l'église.



Ikertzen ari nora antolatu karriketako bideak

Herri erdiko karriken hobekienik antolatzeko lanean ari dira Keima ikertze bulegokoa. Gogoeten oinarrian beribil eta hauen abiadura kondaketak. Helburuetan abiaduraren moteltzea, auzo hurbilekoen geriza eta oinezko ala txirrindularien seguritatea, baita ere aparkatze eremuen eskaintza.

Irailean hartu ditu geometrak topo neurriak, ikusteko zehazki zer zabalera duten gure bideek beribilen ibilbidean eta bide bazterretan; aztertze lan hori eginga izan da bereziki herri erdiko karrika nagusian, Irigoineko bidean eta Panekauko bidean.

Baitezpadako lana da zabalera zehatz horien biltzea, Keimako teknikariek egin ahal ditzaten gero bide antolakuntza egokiak abiaduraren moteltzeko, hurbileko egoiliarren eta mogikortasun eztiak baliatzen dituztenen seguritatea bermatzeko, baita zenbait gunetan aparkaleku gehiagoren begiratzeko. Lehenagoko gogoetarik eta esperimenziazioz, adostua izan zen ahal zen aldi guzietan beharko zutela bide hornikuntzek belarki eta landarekia lehenetsi.

Des aménagements en cours d'études

Plusieurs aménagements routiers sont en cours d'étude avec le cabinet Keima, sur la base des données de flux de circulation, en tenant compte des objectifs de modération de la vitesse, de sécurisation des riverains, de gestion des mobilités douces et de capacités de stationnement.

Les relevés topographiques ont été réalisés en septembre 2023 par les géomètres pour définir les emprises précises des chaussées et accotements sur Karrika Nagusia en centre bourg, Irigoineko bidea, et Panekauko bidea.

Ces données sont indispensables pour que les techniciens du cabinet Keima puissent élaborer des propositions précises en matière d'aménagements qui vont modérer la vitesse, sécuriser les riverains et les usagers des mobilités douces, réserver des espaces pour le stationnement.

Des étapes de réflexions et d'expérimentations précédentes, il était bien convenu que les aménagements devaient intégrer du végétal, chaque fois que la configuration des lieux le permettait.

Udako bide kondaketak / Comptage routier été 2023

Karrika itzuliko bost bide gunetan 2023ko agorrileko lehen astean ezarriak izan ziren beribil eta beribilen abiadura kontagailuak. Lehen taulan agertzen dira bide bakoitz kondatuak izan diren ibilgailuak, 7 egunetan banatuz aste batez pasatu diren guziak. Bigarren taulan bakarrik agertu dugu 30km orrenkoa gainditzen duten beribilen zenbakia, hauen abiadura moteldu beharko baita karrika itzuliko bide horik guziak 30km orrenkoan atxikitzea delibaratuko delarik

Des comptages de véhicules roulants et des relevés de vitesse de ces véhicules ont été relevés par des compteurs sur une semaine du 2 août 2023 au 8 août 2023. Les tableaux ci-dessous présentent les flux moyens relevés sur cette semaine estivale. Sur le tableau des relevés de vitesse ne figurent que les véhicules dépassant les 30km/h, vitesse qui sera en principe généralisée prochainement sur toutes ces voies.

COMPTAGE ROUTIER DEBUT AOÛT 2023

NOMBRE DE VOITURES PAR 24h

IRIGOINEKO BIDEA	sens panekau→irigoin ttipi 197	sens irigoin ttipi→panekau 674	total 871
PANEKAUKO BIDEA	sens mairie→ zone artisanale 884	sens zone artisanale→mairie 494	1378
KARRIKA NAGUSIA	sens balaki→mairie 763	sens mairie→balaki 1110	1873
KARRIKA NAGUSIA	entre balaki et fronton 1754		1754
MOKOXAINEN BIDEA	sens unique depuis larrondoko bidea vers elizako bidea 983		983

RELEVÉS VITESSE

	NOMBRE DE VEHICULES	
	entre 30et 50km	> 50km/h
IRIGOINEKO	601	69
PANEKAUKO	1113	175
KARRIKA	1417	204
KARRIKA	172	1
MOKOXAINEN	470	1

Bizikleta ibilbideak egunerokoan

Errobi poloak bizikleta eskema baten plantan ezartzen lan egin du. Helburua da Poloko 11 herrietako herri barneak elkarrekin lotzea, bai eta leku egituratzaile ezberdinekin ere (geltokia, herria, enplegu eremuak...), eguneroko mugikortasun goxo baten segurtatzeko.

Lehentasunezko hiru ibilbide dagozkio gure herriari.

Lehen ibilbidea: Herri barnetik geltokira, D249tik, Txistulari jatetxearen aitzinetik iragaiten dena.

Bigarren ibilbidea: Herri erdigunetik Kanborako lotura Errobiko lan eremutik

Hirugarren ibilbidea: Ezpeletarekin lotura Errobiko lan eremutik.

Antolaketa motak arrisku mailaren arabera antolatua izanen dira: 30km/ordu gunea, piktogramak... Lan eremua zeharkatzen duten 900 metroak bakarrik bide berdean antolatuko dira, bizikletak eta oinezkoak segurtatzeko, lan ekonomikoa trabatu gabe.

Antolaketa horiek 2024an hasi behar lukete.

Neurri horiei esker, CO2 ekoizpena menderatu behar genuke, joan-etorrien kostuak gutxitu, soinu eragozpak apaldu, airearen kalitatea hobetu, jendeen aktibitate fisikoa sustatu eta... bide kurutzean elgar atxeman...

Des voies cyclables pour mobilités du quotidien

Le pôle Errobi a travaillé sur la mise en place d'un schéma cyclable. L'objectif étant de relier les centres-bourgs des 11 communes du pôle entre eux et aux différents lieux structurants (gare, bourg, zones d'emplois...) afin de sécuriser la mobilité douce quotidienne.

Trois itinéraires prioritaires concernent notre commune :

Premier Itinéraire : Connexion du centre bourg à la gare par la D249 passant devant le restaurant Txistulari.


Deuxième itinéraire : Connexion du centre bourg vers Cambo via la zone artisanale Alzuyeta Errobi.

Troisième itinéraire : Connexion à Espelette via la zone artisanale Alzuyeta Errobi.

Les types d'aménagements ont été préconisés en fonction du niveau de risque : zone 30, pictogrammes.... Seuls les 900 mètres traversant la zone artisanale sont prévus d'être aménagés en voie verte pour sécuriser les cyclistes et les piétons sans entraver l'activité économique.

Ces aménagements devraient débuter courant 2024.

Ces mesures permettront de diminuer la production de CO2, diminuer les coûts de déplacements, lutter contre les nuisances sonores, améliorer la qualité de l'air, promouvoir l'activité physique et au détour d'un chemin se rencontrer.



Udan 10 ototarik 7 Ataitzetan sartzetik atxikiak

En plein été 7 voitures sur 10 dissuadées d'accéder au Pas de Roland

ATAITZEko pasabidearen joan-etorria etengabe handitzen ari da, aurtan 2021ekoa baino handiagoa izan baita.

4071 auto agertu ziren uztailean Ataitzeko pasabidearen sarreran, 184 auto egunean bataz beste. Pasagunearen sarreran gazteen presentziak 2658 atxikitzea ahalbidetu du, hau da, Ataitze zeharkatu ez duten ibilgailuen % 65, nahiz eta bidaiari gehienek oinez segitu duten.

Agorrilean, 5000 auto zenbatu dira, 225 auto egunean batez beste. Horietatik 3683 auto gelditu eta herriko aparkalekuetara bidali dituzte, hau da, auto guztien % 73.

Ez da frogatu beharrik kontrol horren eraginkortasuna Ataitzen sarreran.

Eskerrik asko Sacha, Thomas eta Gabrieli, beren lanean profesionaltasun handia erakutsi dutelako, batez ere oso erreaktiboa izan direlako pasabidean gertatutako istripuetan, eta suhiltzaileen lana errextu dutelakotz.



La fréquentation du Pas de Roland en juillet-août ne cesse d'augmenter, puisque cette année le flux de voitures a été supérieur à celui de 2021.

Cette année, 4071 voitures se sont présentées à l'entrée du Pas de Roland au mois de juillet, avec une moyenne de 184 voitures/jour. La présence efficace des jeunes postés à l'entrée du Pas a permis d'en retenir 2658, soit 65% des véhicules qui n'ont pas traversé le Pas de Roland, même si la plupart des passagers ont continué à pied.

En août c'est un total de 5000 voitures qui a été comptabilisé avec une moyenne de 225 voitures/jour. Parmi ce total, 3683 voitures ont été orientées vers les parkings du village, soit 73% du total.

L'efficacité de cette régulation à l'entrée du Pas de Roland n'est plus à démontrer.

Un grand merci à Sacha, Thomas et Gabriel qui ont su faire preuve d'un grand professionnalisme dans leur travail, notamment en étant très réactifs sur les accidents qui se sont produits dans le passage et en permettant aux pompiers d'intervenir dans les meilleurs délais.

Bere bidean doan Baiona Garaziko treina

Satisfaction au quartier de la gare d'Itxassou de voir le passage à niveau sur Bixkarbideko bidea équipé de signaux lumineux avec barrières.



Itsasuarrek eskatu zuten Baiona Garazi ko treinak berritz geldi zadin geltokian. Badu bi urte jendeketako trein guziek geldialdia badutela Itsasuko geltokian. Gora beherak aldiz Baiona-Garazi ko treinen ibilmoldean. Baina ordea treinen erabiltzaileen zenbaki baikor batzuekin, esperantza idekitzen baitute burdin bide hunen etorkizunarentzat.

Akitania berriko garraioen lehendakari orde den Jacky Emonek gomiatuak zituen 2023ko urriaren 5ean Itsasuko herriko etxerat SNCF eko kudeatzaileak, Hiri Elkargoko mogikortasunaren arduradunak, eta Errobi bazterreko auzapez guziak. Bilkuraren helburua zen Baiona Garazi burdin bide horren ibilmoldeari behako zehatz baten ematea.

SNCFak onartu du nekeak izan direla segituki treinen harat hunaten, bereziki 2022 urtean eta 2023ko hastapenean, gehienetan trein gidari eskasez. Eta hautetsiek aho batez adierazi diote Garazi Baionako burdin bideak ez duela aterabiderik trein zerbitzua ez bada egunez egun jarraikia.

Izan da oihartzun baikorragorik ere Itsasuko bilkura hortan. Gure geltokiko emaitzak Haltsu Laresoro

geltokikoak baino hobek dira. Ibiltari harpidetuen bide sariak interesgarriak dira. Txik Txak autobus sarearekin lotzen ari dute Garazi Baiona tren bidearen saria. Ibiltari gehiago eramaten ahalko duten treinak negoziatzen ari dira burdin bide huntarako. Eta ondoko hamarkadetako aipatzen hasten dira Garazi Baiona arteko joan jinan zinez usuago eskain lezazketela.

Une locomotive qui va à son train

Les itsasuar avaient demandé que la ligne Bayonne-Garazi s'arrête à Itxassou. Le train marque bien l'arrêt en halte d'Itxassou depuis deux ans. Beaucoup de hauts et de bas dans la régularité des allers-retours Bayonne-Garazi. Mais avec une fréquentation qui donne bon espoir pour l'avenir de la ligne.

Le vice président aux transports de l'assemblée régionale de Nouvelle Aquitaine Jacky Emon avait convié le 5 octobre 2023 en mairie d'Itxassou les gestionnaires SNCF de la ligne, les responsables du syndicat des mobilités de la CAPB et les maires des communes de la vallée de la Nive. L'objectif de la réunion était de faire le point sur le fonctionnement de cette ligne Bayonne-Garazi.

La SNCF a reconnu les difficultés à assurer le service de liaison sur la ligne, tout particulièrement sur l'année 2022 et les premiers trimestres 2023, le plus souvent à cause du manque de conducteurs. Et les élus ont été unanimes à rappeler qu'il ne peut y avoir d'avenir pour ce service ferroviaire sans régularité.

Quelques notes plus optimistes ont été déclinées lors de cette réunion d'Itxassou. La fréquentation sur halte d'Itxassou est supérieure à celle de Halsou Larressore. Les tarifs sont intéressants pour les abonnés. Une harmonisation de la billetterie avec le réseau Txik Txak est à l'étude. Des trains de capacités supérieures sont en négociation. Une augmentation des allers-retours a même été évoquée pour un horizon à moyen terme.

Oilomokoenero bidea : Goiz iluntzetan argiak / Eclairage de la voie

Oilomokoenero etxandana eta inguruko bakarkako etxeak eraiki zirenetik, badu Oilomokoenero bide hertsia bereziki kolejio eta lizeetako ikasle frango oinez goizero Segura ondoko autobus geltokirat hurbiltzen denik, eta iluntzero handik beretik etxerat oinez sartzen denik.

Auzokoeak eta ikasleen burasoeak eskaturik, Herriko Etxeak ezarria zuen karrika horren argitzea 2023ko egutegian eta elektrika obra premiatsuetan.

Karrikako argitze obra horiek bururatuak behar zuten 2023-2024 ikasturte berrirako eta beranta hartu dute.

Alabainan, Itsasuko herriak beste herri askok bezala, TE64 departamenduko egituraren esku ezarria du elektrika publiko guziaren kudeantza, eta beraz TE64-en egutegiaren menpe gertatzen da. Gure herriko etxeko teknikari eta hautetsiek bakerik ez diote lehen bait lehen eginik izan dadin Oilomokoenero karrikaren argitze hori.

Depuis la création du lotissement Oilomokoenero et des constructions individuelles sur ce secteur de la commune, la très étroite voie Oilomokoenero bidea est particulièrement fréquentée par les collégiens et les lycéens qui rejoignent l'arrêt de bus devant Segura sur la départementale D918.

A la demande des riverains et des parents d'élèves, la commune avait inscrit l'installation de l'éclairage public de cette rue dans son programme d'électrification pour cette année 2023.

Ces aménagements qui auraient dû être réalisés pour la rentrée 2023- 2024 ont pris quelques retards. En effet, la commune d'Ixassou, comme beaucoup d'autres communes, a délégué la création et l'entretien des équipements électriques publics au syndicat d'électrification TE64 (ex SDEPA), et dépend donc du calendrier de réalisation de ce syndicat. Les élus et les techniciens de la mairie lui rappellent régulièrement l'urgence de ce dossier éclairage de la voie Oilomokoenero bidea.



Gerezi herriak badira denetan munduan Des villages de la cerise partout dans le monde



Responsables de la production de cerise de Hammana

Badu zenbait urte, Itsasuko gerezi ekoizle batzu ibili ziren Argentinan gandi, gereziarentzat famatua den Antiguos de Santa Cruz herrixkan. Izan dira berriki hango herritar batzuekin harremanak.

Berrikiago, Ramuntxo Massondek presentatu dauku Anhoury jaun libaniarra, gaurregun Kanbon bizi dena, eta proposatu dauku bere herrialdeko Hammana gerezien herriko ekoizleekin harremanetan ezartzea. Hammaniakoek gogotik har omen lezakete itsasuarren bisitaldia.

Voilà quelques années, des producteurs de cerises d'Ixassou avaient passé quelques jours sur un village renommé pour sa cerise en Argentine, précisément à Los Antiguos sur la province de Santa Cruz. Les contacts sont encore d'actualité.

Enfin, très récemment, Ramuntxo Massonde nous a présenté Mr Anhoury qui habite aujourd'hui Cambo et qui se propose de créer du lien avec Hammana, le village de la cerise au Liban, où les producteurs seraient motivés pour recevoir une délégation d'itsasuar.

Bizikleta erosi aintzin enseatu

Essayer le vélo électrique avant de l'acheter

Txik Txak sareak proposatzen du bizikleta elektrikoek alokatze luze zerbitzu bat : bizikleta arruntak, karro bizikletak ala plegatzen diren bizikletak.

Helburua ? entseatzea erosi aintzin. Alokatzeko eskaintza hunket lagunduko du nor bera erosteko hautua egiten.

Udazken huntako berrikuntza : alokairua hiru hilabetekoa izanen da aintzineko bi hilabeten orde.

Proposamena idekia da Euskal Hiri Elkargoko egoiliar guzietan, baita Tarnose, Ondrese eta Saint Martin de Seignanx herrietakoei.

Alokatze modu luze hunket, hilabetean 15€tik goiti ematen du mogikortasun ezten entseatzeko parada.

Hiru bizikleta mota badira erabiltzaileen esku ezartzen ahal direnak beharren arabera :

Elektrikazko bizikleta arruntak ez du parerik bakarrik ibiltzeko , karro bizikletak eramaiten ahal dituelarik bi haur.

Aldiz plegatzen den bizikletak ez du elektrika laguntzarik, bainan arina da eta errexi eramangarria, arras egokia adibidez autobus geltokitik bulegoraino heltzeko.

Erreserba guziak internetez egiten dira locationvelo.txiktxak.fr

Bizikletak behar dira ondotik hartu hortarako antolatua diren 18 gunetan.



Le réseau TXIK TXAK propose un service de location longue durée de vélos à assistance électrique : vélo classique, vélos cargos et vélos pliants. Le but ? Permettre de tester avant d'acheter ! Une offre qui permettra de conforter son choix avant de franchir le pas et de s'équiper.

Nouveauté cet automne, ce service de location est désormais disponible pour une durée de 3 mois, contre 2 mois seulement auparavant.

Ouvert à tous les résidents de la Communauté Pays Basque et des communes de Tarnos, Ondres et Saint-Martin de Seignanx, la location de vélo longue durée offre à moindre coût (dès 15 €/mois) l'accès aux mobilités douces.

3 types de vélos sont mis à disposition des usagers pour couvrir tous les besoins.

Le classique vélo à assistance électrique est idéal pour des trajets en solo alors que le vélo cargo permet de transporter jusqu'à deux enfants.

Quant au vélo pliant (sans assistance électrique), léger et facilement transportable, il s'avère bien pratique pour effectuer les liaisons, par exemple entre la station de bus et le bureau.

Toutes les réservations s'effectuent en ligne sur le site locationvelo.txiktxak.fr

Les vélos sont ensuite à récupérer dans l'un des 18 points de retrait.



Vélo à assistance électrique



Vélo cargo à assistance électrique



Vélo pliable

Le forum des associations un réel succès Elkartek foroa arrakastatsua



Irailaren 16ko goizean izan zen foroa, Sanoki gelaren babesean. 16 elkartek osatu zuten erakusmahaina, aurkezpen arras aberatsak apailatuz ; horietako batzuk demostrazio-tailerrak proposatu zituztelarik.

Dagoeneko 2 urte dira Euskara eta Kultura batzordeek gure herriko elkarte guzietan hausnarketa lan bat abiatu zutela, agendak, materiala-ekipamenduak, bakoitzaren beharrak ahal den neurrian partekatzeko...

Lan horren harian, elkarteen foroa antolatu zen, hitzordu horren helburuak herritarren eta elkarteen arteko elkar-trukaketarat bideratuz. Horrez gain, nahi zutenek urteko izen-emaite harpidetza egin ahal izan zuten ere.

Bisitari orok trukaketa mementu hori preziatu ahal izan zuen kafearen zapore goxoa ezpainetan.

Hitzorduaren bigarren partean, elkartetako kideek elgarrekin segitu ahal izan dute, Herriko-etxeak eskainitako aperitifaren inguruan harremanak sakonduz, lagun giro goxo batean.

Eskerrak eman nahi dizkiegu egun honetan gurekin bildu diren Elkarte eta Itsasuar guzietan.



Le 16 septembre au matin a eu lieu le forum à la salle Sanoki. 16 associations ont répondu à l'appel avec des présentations très détaillées pour la plupart, certaines d'entre elles y ont même animé des ateliers. Le public, venu nombreux, a pu profiter de ce moment d'échange autour d'un café.

Cela fait 2 ans déjà que les commissions Euskara et Culture avaient initié un travail de réflexion avec l'ensemble des associations de notre village pour harmoniser leurs agendas, mutualiser le matériel, palier aux besoins de chacune dans la mesure du possible...

Suite à ce travail, le forum des associations a été organisé, en recentrant les objectifs sur l'échange entre le public et les associations. De plus, ceux qui le souhaitaient ont pu souscrire les inscriptions annuelles.

En second temps, les membres des diverses associations ont pu continuer la rencontre et tisser des liens en toute convivialité autour d'un apéritif offert par la Mairie.

Nous tenons à remercier toutes les associations et tous les Itsasuar qui se sont joints à nous lors de cette journée.



Eskolaz kanpoko euskarazko aisialdi denbora Un temps périscolaire en euskara

Euskara batzordeak aspalditik dihardu Itsasuko hiru ikastetxeetako ikasleentzat eskolaz kanpoko aisialdi proiektu baten ikertze lanetan. Haurrei zinezko hezkuntza-denbora eskaintzea da helburua, zeinetan elkartasuna, partekatzea eta besteen ezagutzaren balioak ikasiko diren, murgiltze sistema batean.

Espazio berri bat eskaini nahi genieke, haurrek euskara bizi dezaten eskolako eremuetatik kanpo, aisialdi giro goxo batean. Proposamen hau, motrizitate jardueretan oinarritu daitaie, halaber haurrengandik hurbileko ingurumen-hezkuntza eta ondareari buruzko erakaskuntza ere sustatuko lituzkenak. Koherentzia eta osagarritasunaren segurtatzeko, hiru ikastetxeetako irakaslekin, baita herriko kirol, kultura eta ingurumen arloko eragile elkartekin partaidetzan ausnartuko dugu proiektu hau, bakoitzaren ekarpenari lekua egiteko gisan. 6 eta 11 urte bitarteko haurrak ikastetxeetatik hurbil daitaiken eremu publiko batean bildu nahi genituzke, haurzaindegi denboraldian kursoen ondotik astean bietako proposamena eskainiz.

Proiektua aintzinatu eta borobildu ahala, interesatuak daitaizken familia guzietan aurkezpen bilkura bat proposatuko zaie, zeinetan helburu pedagogikoak, hezkuntza medioak eta parte hartzeko baldintzak zehaztuko zaizkien.



La commission euskara travaille déjà depuis quelques temps sur un projet d'animation périscolaire concernant les élèves des trois écoles d'Itsasu. Il s'agit de proposer aux enfants de réels temps éducatifs durant lesquels ils pourront expérimenter la connaissance de l'Autre, le partage et la solidarité en totale immersion en euskara.

Nous souhaitons proposer un nouvel espace dans lequel les enfants pourront expérimenter l'euskara dans un cadre non plus scolaire mais qui relève du loisir.

Cet espace sera un lieu d'apprentissage basé essentiellement sur des activités motrices mais qui favorisera aussi l'apprentissage de l'éducation à l'environnement et au patrimoine proche de l'enfant. Dans un souci de cohérence et de complémentarité, les enseignants des trois écoles, mais aussi les acteurs associatifs sportifs, culturels et environnementaux du village seront sollicités pour contribuer au projet.

C'est sur le temps de garderie, après la classe, et à raison de deux fois par semaine que nous souhaitons rassembler les enfants de 6 à 11 ans sur un espace communal proche des écoles.

Dès que le projet sera plus abouti, toutes les familles concernées seront contactées afin que nous leur présentions les projets éducatifs et pédagogiques ainsi que les modalités de participation.

Etxauri - Itsasu



Gerezia dugu Etxauriko Herri eta herritarrekin lokarri. Nafarroako ibar hortako hautetsi eta herritar multzo bat ona baginuen gurekin Itsasuko besta igandean. Herriko Etxean egin zaie harrera hamaikatakoarekin, eta ondotik parte hartu dute presoen bazkarian Sanokin.

La cerise sert de trait d'union avec les habitants et la commune d'Etxauri. Un bon groupe d'élus et d'habitants de la vallée navarraise était parmi nous pour le dimanche des fêtes locales. La réception du hamaiketako fut assurée en mairie et ils ont ensuite participé au repas des preso à Sanoki.

Ikasturte eder baten menturan

Aurten, eskolako proiektua zirkuari buruz bideratua da.

Proiektu honen baitan, Baionan kokatua den Oreka zirku eskolako parte-hartzaile batek 10 saio proposatuko ditu. Horrela, ikasleek ikasiko dituzte zirkuaren hainbat jarduera: eskuketak, akrobaziak, oreka, tranpolina. Emanaldi batekin bururatuko da proiektua Sanokin, maiatzaren 17an, ostiralarekin.

Proiektu hori eramaten ahalko dugu Gurasoen elkartearen ekarpenei esker. Mila esker gurasoei!!!

Bestalde, Bil ta garbi erakundearen laguntzarekin, eskolak konpostagailu bat plantan ezarri du eskolako jolastokian. Ikasleek fruituen azal eta gaineratekoak botatzen ahal dituzte barnera. Haur hezkuntzan, ikasleek laguntzailearen eskukaldiarekin fuitu plater bat prestatzen dute egunero eta 10:00etan denek elkarrekin dastatzen dituzte. Milesker gurasoei! Milesker ekartzen dituzten fruituen aniztasunagatik!

Irailaren 28an, lehen mailako ikasleak Atharri inguruan ibili dira gaztainak biltzeko. Uda hondar eder horri esker ikasleak osoki baliatu dira natura ateraldi honetaz. Denek ateraldi hau gozatu dute!

Bukatzeko, eskolako elkarteak ganer hustea antolatzen du azaroaren 26an igandearekin Atharrin. Izen emateak e-postaz egiten dira helbide honetara idatziz: gureeskolaitasu@gmail.com .

Azken urteetako irakasle talde berarekin hasi da ikasturtea. Hona asteko antolaketa:

- VAGNER anderea haur hezkuntzako eta CP-CE1eko ikastaldeetaz arduratzen da frantsesez.
- VACCARI jauna, eskolako zuzendaria, CE2-CM1-CM2ko eta lehen mailako ikasle elebkarren ikastaldeetaz arduratzen da.
- Euskarari dagokionez,
- LADEVESE jauna haur hezkuntzako eta CP-CE1eko ikastaldeetaz arduratzen da euskaraz.
- ETCHENIC jauna, CE2-CM1-CM2ko ikastaldeaz arduratzen da euskaraz.



Ecole communale, une bonne année en perspective !

Cette année, le projet de l'école est centré sur le cirque !

Dans le cadre de ce projet, une intervenante de l'école de cirque Oreka (située à Bayonne) proposera 10 séances par classe. Les élèves pourront ainsi pratiquer la jonglerie, l'acrobatie, l'équilibre et le trampoline. Une représentation clôturera le projet. Celle-ci aura lieu à Sanoki, le vendredi 17 mai.

Ce projet ne serait pas réalisable sans l'Association des Parents d'Élèves qui finance ces interventions. Encore une fois, merci à eux !!!

D'autre part, avec le concours de Bilta Garbi, l'école a installé un bac à compost dans la cour. Les élèves peuvent ainsi y jeter les restes de fruits du goûter. Désormais, en maternelle, les élèves préparent chaque matin avec l'Atsem une collation de fruits disposés sur un plateau, qu'ils dégustent avec grand plaisir à 10h ! Merci aux parents qui amènent, à tour de rôle, des fruits différents.

Le jeudi 28 septembre, les élèves de l'élémentaire se sont rendus autour d'Atharri afin d'y ramasser des châtaignes. Le beau temps de cette arrière saison a permis de profiter pleinement de cette sortie nature. Tout le monde s'est réjoui de cette sortie !

Enfin, l'APE organise un vide grenier le dimanche 26 novembre à Atharri. Les inscriptions se font via l'adresse mail : gureeskolaitasu@gmail.com.

L'équipe enseignante reste stable. Voici l'organisation de la semaine :

- Mme VAGNER a la responsabilité de la classe de maternelles en français ainsi que de la classe de CP-CE1.
- M.VACCARI est le directeur de l'école, il s'occupe de la classe de CE2-CM1-CM2 et de la classe élémentaire unilingue.
- Concernant la langue basque,
- M. LADEVESE s'occupe de la classe de maternelles en langue basque et de la classe CP-CE1 bilingue .
- M. ETCHENIC gère la classe de CE2-CM1-CM2 bilingue.

Arrokagarai ikastola : Elgarrekin euskaraz biziara dezagun Itsasu Faisons vivre le village en euskara



L'ikastola a commencé l'année scolaire avec 91 élèves. Les enfants ont eu le plaisir de redécouvrir la cour de récréation. En effet, les parents se sont organisés pour aménager de nouveaux jeux.

La répartition de l'espace répond mieux à la diversité des âges et l'équilibre d'occupation garçons-filles.

Des jeux diversifiés sont possibles grâce à un espace dédié à chacun (jeux de ballons, parcours, jeux de société), certains enfants ont eu plaisir à découvrir le jeu de dames. D'autres jeux sont en cours de fabrication.

Le jardin, quant à lui, a permis aux enfants de se régaler de framboises au goûter et également d'apprécier les haricots verts.

Autres événements : les élèves du primaire ont participé au festival de littérature basque « Ikusi Mikusi » à Sare. Ateliers de création de livres, rencontre avec des auteurs, visionnage de petits spectacles. Ils sont revenus enchantés, chacun ramenant un nouveau livre pour chez lui.



Ikastolak 91 ikaslerekin hasi zuen ikasturtea. Hurrek kanpoko jostalekua atxemaiteko plazerra izan zuten. Izan ere, gurasoak joko eremu berriak sortzeko antolatuta dira.

Dagoeneko espazioaren erabilera orekatuagoa da (genero eta adin desberdinen artean) eta jokoak dibertsifikatuagoak: baloin jokoei eskainitako espazio batekin, gurpil-bilbide bat oreka lantzeko; lorategia ere, askoz ere ugariagoa da eta hurrek mugurdiak edo lekak jateko aukera izan dute askaria garaian. Batzuek dama jokoa aritzeko plazerra deskubritzen dute. Eta oraindik beste joko batzuk egiten ari dira.

Beste ekitaldi batzuen artean, Lehen Hezkuntzako ikasleak Sarara joan dira "Ikusi Mikusi" haur literatura festibalera. Liburu tailerretan, egile batekin topaketetan edota ikuskizun txikietan parte hartu zuten. Pozik itzuli ziren, bakoitza etxerako liburu berri batekin.

Gure haur kopuruak emendatzen direnez eta gure lokalak hertsiegi izanez, itzuliko herrietako haurrei atea hetsi behar izan ditugu. Hala ere, gure haur kopuruak ez dira murrizten.

2020ko abendoan, Hiri Elkargoak ezarri zaukun algeko bat ikasgela bezala. 2021 eta 2022an, Herriko Etxearen ganik eskuratu dugu eskola publikoaren ikasgela ttipixko baten erabilpena. 2023ko ikasturterako, eskola publikoaren, akademiako inspektorearen eta Herriko Etxearen laguntzari esker, ikasgela ttipiaren ordeztu gela haundiago bat eskuratu dugu, eta zinez eskertzekoa da. Nahiz gure gela eskasaren arazo guztiak ez osoki konponduak izan, denek lankidetzaz eskertu nahi dugu.

Lankidetzaz oraino, hiru eskolek elgarrekin antolatu dute 2023ko Arimen Gau arrakastatsua.

Beti lankidetzaren hariari segituz, buruilan, Itsasuarrak txirindulari elkartekoekin Artzamendi-ko desafia antolatu dugu. Datorren urtean berritu beharko litzatekeen kirol erronka, txirindularitza maite dutenentzat.

Face à la hausse constante de nos effectifs et l'exiguïté de nos locaux, nous avons dû fermer nos portes aux enfants des autres villages. Nos effectifs ne diminuent pas pour autant. En décembre 2020 la CAPB nous avait installé un algeco pour salle de classe. En 2021 et 2022, nous avons obtenu de la commune la mise à disposition d'une salle de classe de l'école communale. Et en cette rentrée 2023, grâce à la collaboration avec l'équipe pédagogique de l'école publique, l'inspectrice d'académie et la mairie, nous avons pu la remplacer par une salle plus adaptée à nos besoins et nous en sommes très reconnaissants. Certes, nos problèmes de locaux ne sont pas tous résolus, mais nous apprécions l'esprit de collaboration de la part de tous qui a prévalu ces dernières années.

Collaboration aussi entre les trois écoles avec le succès de Arimen Gau 2023.

Collaboration encore avec le cyclo club d'Itsasuarrak pour l'organisation d'Artzamendiko desafia, un véritable défi sportif pour les amateurs de cyclisme qui devrait être renouvelé l'an prochain.

San Josep eskola :

Itsasuarren elkartasuna preziatzen burasoek

Des parents mobilisés qui apprécient la solidarité des itsasuar



APEL elkarteak biltzen ditu aurten ere eskolako buraso guziz gehienak. Osoki berriua izan da azken biltzar nagusian elkartearen talde kudeatzailea, 7 taldekide hauekin : Nathalie (lehendakaria), Christelle (lehendakari ordea), Muriel (idazkaria), Pascale (idazkari ordea), Emmanuelle (diruzaina), Aurélie (diruzain ordea) eta Emilie (kidea).

Aurtengo ikasturtean ere, elkarteak antolatuko ditu ekitaldi nagusiak, itsasuarren parte hartzerat behartzen dituztenak, azaroan Atharrin egiten den seaska hustea bezala, maiatzaren 8an herriko etxe aintzineko landare salketa, edo gerezi besta bezperako kontzertua elizan, ahanzi gabe noiz behinkako saltzapenak (xokoleta, izaiak, bixkotxak, maiatz lore....)

Ekitaldi horiek denek laguntzen dute erakasle taldeak antolatzen dituen eskolen ateraldien dirustatzea, aurkikuntza bidaietik ama eskolako ateraldietarat, CM2koen lerragune egonaldirat edo material pedagogiko erostearaino.

APEL elkarteak eskertu nahi ditu antolatzen dituen ekitaldietan parte hartzen duten itsasuarren, baita ere sustengatzen dituzten elkarteak, Vieux Machins elkarte diru eskaintza eginik. Elkartearen arteko laguntza azkarra bada herrian eta laguntzen du aintz ekitaldien antolatzeke.

Sarde Sardexkarekin UDAZKENEKO FRUITUAK beste modu batean ikasi

Urriaren 5an Urtxintxek, Pinpirinek eta Haundiek gustu atelier batean parte hartu genuen. Sarde Sardexkako elkarte Lucie gure gelara etorri zen udazkeneko fruituak beste modu batean erakustera.

Lehenik eta behin, fruituak begiratu gabe asmatu behar izan genituen. Gero izendatu eta deskribatu izan genituen (kolorea, forma...) eta azkenik atalik gozoena: moztu ondotik, usaindu eta jastatu genituen, baita begiak etxita ere! Bikaina izan zen udareak, bananak, sagarrak eta intxaurrek horrela lantzea!

Le 5 octobre, les élèves de PS, MS et GS ont participé à un atelier goût! Lucie de l'association Sarde Sardexka est venue dans notre classe pour nous faire découvrir les fruits d'automne différemment.

D'abord, nous avons deviné les fruits sans les voir. Après, nous les avons nommés et décrits (couleur, forme...) et pour finir la partie gourmande : nous avons coupé, senti et mangé les fruits, même les yeux fermés!

C'était chouette de connaître ainsi les poires, les bananes, les pommes et les noisettes!

L'apel est, cette année encore, une association forte de tous les membres que sont les parents car presque tous font partie de l'association. Le conseil d'administration est entièrement renouvelé cette année avec une équipe de 7 personnes : Nathalie (Présidente), Christelle (Vice-présidente), Muriel (Secrétaire), Pascale (Vice-secrétaire), Emmanuelle (Trésorière), Aurélie (Vice-trésorière) et Emilie (membre).

Cette année encore, l'association organisera ses manifestations phares, qui font participer de nombreux itsasuar, comme le vide poussette en novembre à Atharri, le marché aux plantes le 8 mai sur la place de la mairie, ou encore le concert à l'église la veille de la fête de la cerise sans oublier les différentes ventes (chocolats, sapins, muguet, gâteaux, ...).

Tout cela permet de financer une partie des sorties scolaires que l'équipe enseignante organise comme le voyage découverte, les sorties des maternelles, le séjour au ski des CM2 ou encore du matériel pédagogique.

L'Apel remercie vivement tous les itsasuar qui répondent présents durant les manifestations, les associations qui prêtent du matériel et les vieux machins pour leur don financier. L'entraide entre associations est très forte et permet de faire beaucoup de choses dans le village.



Sortie pédagogique au Syndicat et à l'Atelier du PIMENT Biperra

Hara, hara, gure gurmantzkeriekin bukatzen dugu. Aldi huntan autobusa hartu dugu Ezpeletara joaiteko eta biper gorria hobekiago ezagutzeko eta, ekainetik nola handitu den ikusteko (MS et GS). Horretarako, Biperraren sindikatera eta Biperraren Atelierrera joan gira eta han biper gorriaren bizi zikloa ikasi dugu, nola landatu eta hazitzen den, landareak ikusi ditugu, loreak eta biperrak. Paperrezko biper poltit bat egin dugu eta azkenik, gehien maite dugun atala: jastatu!!! Erreximenta, tomate saltsa, rillettes, baita ere xokoleta.

Voilà voilà, nous terminons avec nos gourmandises. Cette fois-ci, nous avons pris le bus pour aller à Espelette afin de mieux connaître le piment et voir comment il a grandi depuis juin (pour les MS et GS).

C'est ainsi que nous sommes allés au Syndicat du Piment et à l'Atelier du Piment afin d'apprendre le cycle de vie du piment d'Espelette, comment la graine est semée et se développe en plant à fleurs qui donnent ces beaux piments verts puis rouges transformés par la suite en poudre relevant divers mets dégustés sur place.

Berritasun zenbait Herriko jantegian La cantine scolaire à l'heure des changements

Ikasturteko egun guzietan, berrehun hurrez goiti Itsasuko eskoletako jantegian, eta zortzi emazte eguerdiko janariaren zerbitzari eta garbiketari lan guzietan berme.

Aurtengo berritasunik handienak CM2 gelako ikasleak hunkitzen zituen, nor berak hartzen baitzuen bere janaria herriko jantegian sartu ondoan. Haurrei bezala langilei berehala gustatu zaie janari banaketa molde berria. Gazteak bere gain hartzerat eta eskuaren ematerat behartuak dira janari banaketa molde hortan. Zenbait egun gabe, CM1eko ikasleek ere beren lagun handiagoen bide beretik segitzea eskatu dute.

Beste aldaketa batzu ere ezagutu ditu Itsasuko jantegiak aurtengo larrazkenean. Ondarkinen berexketa eta janari gutienaren funditzea dituzte ekintza sail hauek helburu. Horretaz lantzeko, Kanboko Jantegi eskola jatetxean ezarri den funtzionamendu moldeaz ohartu ahal izan dira hautetsiak, Herve Etchebarnek errezebituak.

Ez zen egokia gai horiei buruzko sentsibilizatuak diren belaunaldi gazteak neurri horien aplikatzerat ez behartzea beren ikastegiako jantegietan.

Janari gutienaren funditzea ere Euskal Elkargotik heldu zaigu Itsasuko jantegirat. Ekintza zuzenean Mattin Bil ta Garbiko bereizketaren enbaxadoreak sustatzen du, herriko langileekin batera, borondatezkoa eta engaiatua.

Momentukotz, proiektuaren aurkezpen bilkura bat iragan da langileekin, hurrengo urratsak finkatuz. Janari hondarren bi pisaketa eginak izanen dira urte bukaera aitzin, eta ondotik, 2024 hastapenean, haurrek gai horri buruzko sentsibilizazio bat ukanen dute beren eskoletan, pisatze berriak egin aitzin. Paraleloki, bereizketa selektibo metodo berriak obratzen dituzte langileek jantegi zerbitzuan.



Quelques 210 enfants des trois écoles fréquentent la cantine communale sur toute la période scolaire et autour de 8 agents employés par la mairie pour assurer le service et différentes tâches de nettoyage et d'hygiène.

Le mode « self-service » a été expérimenté à la rentrée 2023 - 2024 avec les élèves des classes de CM2. Les enfants et le personnel ont rapidement apprécié la nouvelle formule. Les jeunes doivent ainsi se prendre en charge et participer davantage à l'heure du partage du repas quotidien. Vite après la rentrée, les élèves de CM1 ont également demandé à être considérés comme leurs aînés.

D'autres démarches ont également été engagées en cette rentrée 2023-2024 dans les locaux de la cantine scolaire d'Ixassou. Elles concernent en particulier le tri des déchets et la réduction du gaspillage alimentaire. Il n'était pas cohérent que les jeunes générations qui sont sensibilisées sur ces sujets dès le plus jeune âge ne soient pas invitées ou contraintes à l'exercice sur leur lieu de restauration commune.

Pour s'en imprégner, des élèves, accueillies par Hervé Etchebarne, ont pu se rendre compte du mode de fonctionnement mis en place au restaurant scolaire Jantegi de Cambo.

Le sujet de la réduction du gaspillage alimentaire a été soufflé par les services de l'agglomération. L'action est animée directement par Mattin, ambassadeur du tri à Bil ta Garbi, aux côtés du personnel communal, volontaire et engagé.

Pour l'heure, une réunion de présentation du projet s'est déroulée avec les agents, fixant les prochaines étapes.

Deux pesées des restes alimentaires seront réalisées avant la fin de l'année puis, début 2024, les enfants bénéficieront dans leurs écoles d'une sensibilisation sur ce thème, avant que ne soient réalisées de nouvelles pesées.

Parallèlement, de nouvelles méthodes de tri sélectif sont mises en œuvre par les agents durant le service de restauration.



Baratze bat emankorra, pedagogikoa eta kolektiboa Un jardin nourricier, pédagogique et collectif


Sarde Sardexka Itsasun kokatzen da !

Sarde sardexka elkarteak 2014an sortu zen helburu argi batekin : « saretu eta lagundu lurraldeko eragile eta herritarrak janari edo elikadura sano, kalitatezko eta arduratsu baten inguruan » (xehetasun gehiago : www.sarde.sardexka.weebly.com).

Ezpeletan jarria zen hastapen batean Sarde sardexka, eta orain Itsasuko jantegian izanen du bere helbidea, Herriko Etxearekin konbenioz adosturik. Bertan garatuko du lurretik azietara bere egitasmo berria, landuz baratze emankor, pedagogiko eta kolektibo bezala herriarena den lur eremutxo bat gerezi kontserbategiaren azpikaldean.

Proiektorearen burutzeko, Sarde sardexkak nahi litzuzke bildu interesatuak diren herriko eragile guztiak (elkarte, enpresa, erakaskuntzako egitura ala herritar) eta hauen sustenguekin egin.

Nahi duenak parte hartu ibilbide hortan : sarde.sardexka@gmail.com



SARDE SARDEXKA s'installe à Itxassou !

Née en 2014, SARDE SARDEXKA est une association loi 1901 qui a pour but de « relier et accompagner les acteurs et citoyens du territoire vers une alimentation saine de qualité et responsable » : www.sarde.sardexka.weebly.com

Initialement basée à Espelette, l'association a changé son siège social pour s'installer dans les locaux de la cantine à Itxassou (sous convention de partenariat avec la mairie) et développer son nouveau projet « de la terre à l'assiette » qui consiste à transformer une parcelle municipale située au pied du verger conservatoire de la cerise en jardin nourricier, pédagogique et collectif.

Pour mener ce projet, SARDE SARDEXKA souhaite réunir et s'appuyer sur tous les acteurs du village (structures éducatives, associations, entreprises, habitants) intéressés par la démarche.

Si vous souhaitez participer à l'aventure et connaître les détails du projet : sarde.sardexka@gmail.com

Herriko etxearekin partaidetza / En partenariat avec la Mairie

Hautetsiek bazuten haurren sentsibilizatze gogoia elikadura sano, orekatu eta bertakoari. Baitezpadako gai andana bat hurbil eta obra daiteke lurra bezalako ikasgai praktikoko batekin : barazkiak baratze alorretan hazten dira, lurra bera gai bizi bizia da, jantegiko ondarkinek lurra hazten ahal dute, euri urak bilduz landareak urtutzen dira....

Eskoletako jantegiaren ondoan Sarde Sardexkak erabiliko duen lur zatiak emanen du ikastetxetako haurrei baratze gintzan eskua sartzeko ahala, baita hurbiltzeko elikadura eta ingurumenari doazkien hainbeste gaiei.

Agian Herriko Etxea eta Sarde sardexkaren uztartzeak lagunduko du elkarteak bere egitasmoaren garatzen herriko haur eta herritarrekin, eta ondotik garapen hori zabaltzen gure herritik haratago.

Les élus de la commune partageaient la volonté de sensibiliser les enfants à une alimentation saine, équilibrée et locale. Plusieurs sujets essentiels peuvent être abordés et expérimentés avec un apprentissage et une pratique de terrain : les légumes sont cultivés dans le jardin, la terre est une matière vivante, les déchets de la cantine peuvent servir à nourrir la terre, les eaux de pluie peuvent permettre d'arroser les végétaux.....

Le terrain mis à disposition à proximité de la cantine scolaire permettra aux enfants de s'essayer au jardinage et de s'initier à toutes les thématiques liées à l'alimentation et l'environnement.

Le projet de partenariat mairie – sarde sardexka permettra à l'association, espérons-le de développer son activité en relation avec les écoles et les habitants au sein du village et d'élargir également son activité sur une zone beaucoup plus étendue.

Itsasuarrak ospatzen ditu bere 70 urteak L'association célèbre ses 70 ans



Egunaldi atsegina izan da Atharrin urriaren 14 larunbatekoa. Estreinaldi formalean eskertu dira Itsasuarrak elkarte sustatu eta sortu zutenak, orduko Erramuzpe apez pilotaria barne, gogoratu dira elkartearen kudeatzaileak, lagundu eta osatu duten guztiak, bereziki gure besteren antolatzaileak, pilotariak, dantzariak, musikariak, txirindulariak

Baztango harginek altxatu omen zuten Gaztetxea 1953- 1955 urtetan, herritar askok auzo lanean ekartzen zutelarik baitezpadako laguntza. Gaztetxea gela antzerkiarentzat altxatua izan zen. Euskarazko antzerkia nahitaez orduko herri giroan, Ttale Ouret, Marcel Borda edo Marie Jeanne Malharin taula zuzendari ezagutu zirelarik. Geroago iragan dira taula gain hortarik Mattin, Xalbador edo Lazkaottiki bertsolariak, Benito Lertxundi, Nico Etxart edo Peio ta Pantxua kantariak, besteak beste. Berrikiago, jarlekuak kendu ziren eta klika musika taldeak erabili zuten Gaztetxea trebatoki bezala. Azkenik bilkura edo bazkari toki bezala baliatzen zen gehienik Gaztetxea.

Oihartzun jasan ezina zuenez Gaztetxea gelak, akustika hobetu duten obraren egiteari lehiatu dira Itsasuarrak elkarte buruak, aterbea bera berriua zutelarik duela bi urte. Antzerki edo kontzertu gela preziatua izan liteke, askoz handiago den Harri Xuri Luhusoko gelaren aldean.

Ataitze dantza gelari ere berrialdi ona ekarri diote Itsasuarrak elkartekoek. Zurezko taulada ezarria izan da aurtengo udan gelaren zabalera guzian, mirailuz inguratua dantza gela berezitueta bezala.

Pilotari bezain dantzari harrobi sendoa duen herriak merezi zuten elkargune eta trebagune eder hori egokitzea, beste lau hamarkadentzat.

Le samedi 14 octobre a été une belle journée sur le plateau d' Atharri. Sur le prétexte de l'inauguration formelle des travaux de Gaztetxea et de la salle d'Ataitze, a été évoquée la mémoire des inspireurs et des fondateurs de l'association Itsasuarrak en 1952, sans oublier la cheville ouvrière que fut le curé pilotari Erramoussé, mais aussi tous ceux qui ont géré, soutenu et participé à l'association comme les organisateurs de la fête de la cerise, les pilotari, les dantzari, les musikari et autres txirindulari....

Ce sont les maçons du Baztan qui auraient construit Gaztetxea entre 1953 et 1955, avec l'indispensable collaboration des habitants d'Ixassou qui assuraient entre autres le transport des matériaux et mettaient à disposition leur main d'œuvre bénévole.

Cette salle a longtemps été dédiée au théâtre populaire et aux animations récréatives en euskara. Sont passés par là T. Ouret, JM. Malaharin, M.Borda pour le théâtre, Mattin et Xalbador pour les bertsulari, B. Lertxundi, N. Etxart, ou Pantxo ta Peio pour les kantaldi.

A l'été 2023, les dirigeants d'Itsasuarrak ont fait réaliser des travaux d'amélioration acoustique. La toiture avait déjà été reprise en 2021. Voilà donc Gaztetxea rajeuni, qui pourra recevoir à nouveau du théâtre et des concerts dans une ambiance plus intimiste que Harri Xuri de Louhossoa.

L'association Itsasuarrak a aussi entrepris des travaux sur la salle de danse d'Ataitze. Le sol a été recouvert d'un plancher en bois sur toute la surface, confort que les danseurs qui s'exercent régulièrement à Ataitze devraient apprécier.

Pour un village qui est une mine de dantzari comme de pilotari, voilà un bel aménagement qui devrait assurer la pérennité de la troupe de danseurs basques pour les 40 années qui viennent.



Harro harro bost egun besta herritarrei eskaintzeaz Beaucoup de fierté à proposer cinq jours de fête



Alice Dugauguez Menditarrak herriko besta elkartearen buruzagi da azken lau urtetan, hurbil hurbilean bazituelarik elkarteko bulegoko lagunak.

Hemezortzi urte zituen Alice-k ardura hori eskutan hartu zuelarik. Aipatzen dauzkigu zenbait hitzez herriko bestak eta hauen antolakuntzan

komiteko gazteek ezartzen dute engaiamendua.

Denak ongi joanez bulego berri batek hartu behar luke lekukoa 2024an.

Zer ondorio Alice 2023 urte huntako Itsasuko bestetaz ?

Orokorki bilan biziki baikorra. Jendea ibili da, orohar giro ona, zalapartarik ez eta komiteko lagunaren inplikazio azkarra. Zikiroko tokiak aintzin saltzapenean denak itsasuarrei joan dira. Diru mailan aldiz kezka gehiago menturaz, bilan zehatza 2024 urte hastapenean agertuko da. Herritarrek etxe inguruan eman dutenak ainitz lagundu du egitarauaren diruztatzen, nahiz jende batzuek ez daukuten oraino barkatzen 2022ko zikiroan lekuri gabe egona.

Nola ikusten duzu besta larunbatekoa Atharrin antolatzea ?

Gure herrien ixtorian, herriko plaza da bestak antolatzeko gunea. Halaere, egia da Atharriko lekuak eskaintzen duela jendearen lasaiago kokatzeko eremu ederra. Jendea errexkiago harat hunakatzen da eta nahitaez kalapita arrisku gutiago da. Bada lekua ezartzeko taulada eder bat, bi ostatu gune handi eta stoka errexki kudeatzeko.

Zer erran zinezake zuk Menditarrak elkarte hortako engaiamenduz ?

Urte guziko ardura bat da. Besta garaietik kanpo ere, noiznahi deituak gira oihalezko aterbe, bar edo argien alokatzeko, baitaere musika taldeen erreserbatzeko. Herriko besten antolakuntza urtarrean hasten da eta urte ondarra bilan egiteko bilkurei dedikatzen da. Egia da badela ardura ainitz, baina ere harrotasun frango heltzen zirenean itsasuarrei 5 egun besta eta elgarretaratze eskaintzen, errebestak ahanzi gabe. Esperientzia baliosa eta interesgarria da.

Alice Dugauguez est Présidente de Menditarrak depuis 4 ans. L'association organise chaque année les fêtes patronales. Elle a hérité du poste à 18 ans, et reconnait bénéficier de la précieuse collaboration de ses camarades du bureau. Elle nous a livré quelques mots concernant les fêtes du village et l'engagement dont les jeunes font preuve au sein du comité.

Si tout va bien, un nouveau bureau du comité devrait prendre le relais en 2024.

Alice, quel bilan tires-tu de cette édition 2023 ?

Le bilan moral est très positif, il y a eu du monde, une bonne ambiance générale, pas de débordement et une super implication des membres bénévoles. Les places du zikiro ont toutes été vendues aux villageois lors de la prévente. Le bilan financier est quant à lui plus réservé, le bilan final sera présenté en début d'année 2024. Les quêtes auprès des villageois ont beaucoup aidé au financement du programme bien que certaines personnes nous reprochent encore de n'avoir pu avoir de place au méchoui 2022.

Que penses-tu de la délocalisation du samedi à Atharri ?

Dans l'histoire de nos villages, la place du village ou du fronton reste le lieu emblématique et central des fêtes mais il est vrai que pour la soirée du samedi, le site d'Atharri offre un emplacement idéal en termes de capacité d'accueil. Sa configuration permet à chacun de circuler plus aisément et d'éviter des bousculades. Il y a de la place pour installer une belle scène, deux grands bars et de l'espace pour gérer notre stock.

Que peux-tu nous dire de l'engagement au sein de cette association Menditarrak ?

L'investissement est à l'année. Même hors période fêtes, nous sommes sollicités toute l'année pour les prêts des chapiteaux, des bars ou des lumières aux autres associations ainsi que pour répondre aux sollicitations des groupes de musique. La préparation des fêtes débute au mois de janvier et la fin de l'année est dédiée aux réunions-bilans. C'est vrai qu'il y a beaucoup de responsabilités mais beaucoup de fierté d'arriver à proposer aux Itsasuar 5 jours de fête et de rassemblement, sans oublier les refêtes. C'est une expérience très enrichissante et très intéressante.



Herriko pestak euskaraz

Euskararen presentzia eta erabilpena indartu nahi izan du herriko-etxeak uda huntan, batez ere oldar berezi bat emanaz herriko besteri. Besta komiteko eta Goxoki elkarteko kide guztiak agorriaren 18an herriko-etxerat gomiatu zituen, Herri-elkargoko "pesta kit" euskarria aurkezteko.

Euskarri horren arabera, edozoin pestalierri (euskalduna izan ala ez) euskaraz mintzatzeko aukera eskaintzen zaio, ostatuaren gainaldean afitxatuak diren hiztegi dinamiko batzueri esker. Komunikatzeko erranaldi ohikoenak eta hitz ximpleak ikasi eta erabiltzeko aukera eskaintzen du dispositibo honek (agurtu, eskertu, kondatu, etab.).

Lagunarteko trago-pintxo batekin bukatu ziztaigun bilkura hunek -elkarteen eta herriko-etxearen arteko atsedendaldi eta eztabaidarako mementoa ez ezik- gure gazteak gure hizkuntzaren erabilpenaren inguruan sentsibilizatzea ahalbidetu zuen, baina baita herriko besten bezperan gure sustengutuen ekartzea ere.

Les fêtes du village en euskara

La municipalité a souhaité renforcer la présence de l'euskara cet été et tout particulièrement pendant les fêtes. Elle a invité à la mairie tous les membres du comité des fêtes et de l'association Goxoki le vendredi 18 août afin de leur présenter le dispositif « kit pesta » de la CAPB.

Ce dispositif permettait à tout consommateur, bascophone ou non bascophone, de s'adresser en euskara à toutes les personnes de l'organisation, grâce à des affiches présentes aussi bien sur le comptoir que derrière celui-ci. Des petits dictionnaires étaient également mis à disposition. Ils permettaient à tout un chacun d'apprendre et d'utiliser les mots et expressions les plus courantes de la communication (saluer, remercier, compter, ...).

Cette réunion qui s'est terminée par un moment convivial (temps de pause et d'échange entre associations et mairie) a permis d'inciter nos jeunes à s'exprimer en euskara, mais aussi de leur apporter notre soutien à la veille des fêtes.



C'EST FACILE DE COMMANDER EN EUSKARA !

1. ONGI IKASTIA NAIZ JE SUIS COURTOIS

EGUN ON!	BONJOUR	MILESKER! MERCI
GAU ON!	BONSOIR	TOPA! TCHIN
OTOI!	S'IL VOUS PLAÎT	OSASUNA! SANTÉ

BESTEĀN ERE EUSKARAZ!

2. EDARIA JE BOIS

> GARAGARNO	> ARNO
> SAGARNO	> UR
> LARANJA JUS	> KOLA

3. KONTATZEKO JE COMPTE

1 : BAT	6 : SEI
2 : BI	7 : ZAZPI
3 : HIRU	8 : ZORTZI
4 : LAU	9 : BEDERATZI
5 : BOST	10 : HAMAR

ESALDIA ERAIKITZEKO JE CONSTRUIS MA PHRASE

JE VEUX UN SEUL PRODUIT :

EGUN ON / GAU ON + «BOISSON» + «BAT» OTOI

Ex : EGUN ON | GARAGARNO | BAT | OTOI

JE VEUX PLUSIEURS PRODUITS IDENTIQUES :

EGUN ON / GAU ON + «NOMBRE» + «BOISSON» OTOI

Ex : GAU ON | HIRU | SAGARNO | OTOI

JE VEUX PLUSIEURS PRODUITS DIFFÉRENTS :

EGUN ON / GAU ON + «NOMBRE» + «BOISSONS» ETA «NOMBRE» + «BOISSON» OTOI

Ex : GAU ON | BI | KOLA ETA | LAU | SAGARNO | OTOI

Goxokik 35 urte : « Tu es Goxoki le grenier de toutes nos jeunes années »

Goxoki, etzaitugu zenbait lerrotan laburbiltzen ahal eta ez ditugu zerrendatzen ahal mundura ekarri eta biziarazi zaituzten pertsona guziak .

Zure arbol genealogikoa ez dizugu egin, baina huna hemen bertan zati handi bat.

Huts egiten ez den familiako bazkari batean bezala, hemen gaituzu zure mahain inguruan.

Itsasun sortu zira mutikoen lehengo eskolan 1988an.

Haur desiratua izan zira batzuen partetik, zure herrian denek ez bazuten ber emeia partekatzen ere, zure lekua egiten lortu duzu.

Zahartu arau garai politiko, aldarri, musika estilo, droga, janzkera moda eta garagarno mota desberdinak ezagutu dituzu.



Zure eragina gure Lur sainduan, ikaragarria izan da !!!

Abertzaletasunaren sehaska, euskararen etxea , belaunaldiak elkartzen dituen egoitza, injustizien kontrako harresia, elkarlanaren atea, irri ta mozkorkeri guzien sotoa eta denen gaztaroaren ganerra zira Goxoki.

Zure etxeko atea beti ideki dizkiguzu, onartu gaituzu giren bezala, gure egun alai ta postura hobereenetan baita gure dekadentzia momentu handienetan ere.

Hainbat laguntasun, bikote, kexaldi, piramida, eztabaida, xopage, goitibota eta kokinkeri bizitzen permititu diguzu.

Gure goxoki, kanpotiar batzuen ahotik « cochon cuit » izendatua izan bazira ere, jakin duzu zure defenditzen eta batzu zure zepoan lerrarazten.

Zure gustuak aldatu dira urteetan zehar, afitxek dioten bezala jakin duzu trash, panpos, probokatzaille, baina beti harro izaten. Utzikeria eta desantolaketa seguraski zor dizkiogu zure izenari, Goxoki. Artetan goxokiegi, eta gehienetan presaka gualdiak antolatu baditugu ere, beti gustu goxo bat utzi diguzu.

Goxokiaren adikzioa bezala, nahi zaitugu, oino ta oino, betiko !

Azken bost urteetan zure etxeko bi galdu dituzu, gogoan ditugu Julen eta Kiki. Doluaren bidean ere zure etxeko atea ideki dizkiguzu, eta zure baitan bizi arazten segitzen dute.

Egin zaitugu egiten gaituzun manera berean, hartu eta eman, hor ukanen gaituzu luzaroan, desagertzen ez den altxor baten moduan, Urtetebetetze onnn GOXOKI!!!!!!!!!!!!

Xapata

Negu huntan landatu !

"Xapata",Itsasuko gerezi ekoizleen elkarteak gerezi ondoak saltzen ditu .PELOA-XAPATA-BELTXA (bai ta BILARROA-MARKIXTA-GOIXTIARRA batzuk).

Manatzeko igorri behar da mezu bat elkarteari contact@cerise-itxassou.com erranez zombat arbol nahi dituzun, mota, helbidea eta telefona zenbakia zehaztuz.


Ondoa 25 euro (erroak biluzirik).

Banaketa abendo erditsutan eginen da.

Cet hiver plantez !

Vente de cerisiers de variétés locales PELOA-XAPATA-BELTXA (et quelques exemplaires de XURIA-BILARROA-MARKIXTA-GOIXTIARRA en fonction des disponibilités).

Pour commander envoyez un message en précisant le nombre de plants, les variétés, votre adresse et numéros de téléphone à l'association des producteurs de cerises d'Itxassou "Xapata" à contact@cerise-itxassou.com.



Le plant est à 25 euros (racines nues). Le retrait des plants se fera vers la mi décembre à Itxassou.

Arroka mendi elkarteak harria zutik plazan

L'association Arroka ramène la montagne au fronton



Arroka mendi elkarteak herriko plaza bezain gorako harri urdin zuta ezarria zuen pilota errebotearen erdian. Buruilaren 16an, goizetik arats ibili dira haurrak harrian gora aztaparka. Mendi elkarte berriaren egunaldiak arrakasta ederra bildu du eta segituko du pilota lekuen erdian edo aldean ametsetan gora.

La jeune association de loisirs montagne a investi la place du fronton en y installant un imposant rocher école. Les enfants ont apprécié ce samedi 16 septembre 2023 les ascensions sur le caillou éphémère. Belle réussite pour cette première édition de Arroka eguna, l'association qui a les yeux rivés sur le projet de Balaki

Mugialdi



Mugialdi elkarteak berritz hasiak ditu bere ekitaldiak irailean.

Dantza libroan, bost erritmotako dantzaren haritik, hamar lagunez gora irailaren 10 ean eta urriaren 15ean.

Kundalini yogan : hamabost izen emaite baino gehiago ikasturte berrirako

Jazko molde berean, kundalini yogako kideentzat, egunaldi bat osoa beste herrietako kideekin abendoaren 10ean igandez.

DENEK BAT

LES ENSEIGNANTS DE LA FTKY S'UNISSENT POUR VOUS PROPOSER UNE JOURNÉE DE PRATIQUE

dimanche 10 décembre 2023

Kundalini Yoga, danse libre, danse méditative, présentation de l'enseignement, méditations, chants sacrés...

Salle Sanoki
sur l'invitation de l'association Mugialdi
Le Bourg 64250 Ixassou
Infos et inscriptions: Claire 06 24 82 02 32
Florence 09 22 08 80 77 Ouverture 09 24 00 45 87
Skype 0674 49 40 22

Accueil à partir de 9h30. Début des pratiques à 10h.
Tarif journée 55€ Demi-journée (de 10 à 13h ou de 14h30 à 18h) 30€
Ouvert à tous

L'association Mugialdi a repris ses activités dès la rentrée.

En danSe LIBRE ! inspirée de la danse des 5 rythmes les dimanches 10 septembre et 15 octobre avec plus d'une douzaine de personnes habituées ou curieuses d'expérimenter.

La proposition est de se retrouver une fois par mois, pour un moment d'expression libre et guidée, libérateur et créatif, ouvert à tou(te)S.

En kundalini yoga , les mardis à 9h45 et les jeudis à 18h45.

Déjà près d' une quinzaine d'inscrit(e)s pour les séances hebdomadaires de ce yoga ancestral, accessible à tou(te)S.

La 1ère séance découverte reste offerte.

Alors, RDV dimanche 10 décembre 2023 ! à 9h30.

OnGi Etorri deneri ! Complément d' infos et prochains RDV sur WWW.FACEBOOK.COM/MUGIALDI

Contact Claire 06 24 82 02 32

Itsasuko itzulia oinez mendietan gaindi En parcourant nos montagnes

Lasterkariak hor ziren aurten ere, bi trail-etan (24 et 14km) 300 lasterkari. Ibilkari batzuk ere hor ziren itsasuko mendi kaskoetatik bixta ederraz gozatzeko.

Irailen 10ean, aro grisa lehenik eta ondotik goiz iguzkitsu bat bero haundi batekin goiz undarrean.

Eguna Atharrin bukatu da bazkari baten inguruan, giro goxo batekin.

Egun on goxo bat pasatu dugu, bolondres parte hartzaile eta sustengatzaileeri esker.

Milesker deneri eta helduden urte arte.

Les coureurs ont répondu présents pour cette nouvelle édition puisqu'ils étaient environ 300 répartis sur les deux formats 14 et 24 km.

Le dimanche 10 septembre, nous avons eu un temps un peu couvert jusqu'à 9h30 et ensuite un temps magnifique d'arrière saison avec une forte chaleur en fin de matinée.

Des randonneurs s'étaient donnés rendez-vous pour profiter d'un magnifique panorama. Tout s'est terminé autour d'un excellent repas sur le site d'Atharri dans une bonne ambiance.

Nous avons réussi encore cette année à faire une très bonne édition grâce à l'aide de nos super bénévoles.

Merci à tous et rendez-vous l'année prochaine.



Artzamendi pirripitaz En vélo du clocher à la boule

Aro ederra lagun, hogoita hamar bat txirrindulari ziren 2023ko irailaren 24 ean, bidez bidez, Atharri ezker paretatik abiatuak Gehaston gaindi Artzamendi kaskoraino.

Itsasuarrak elkarteko txirrindulari multzoak eta Arrokkagarai ikastolako burraso elkarteak zuten asmatua eta antolatua ibilaldi kozkor hori. Lehiari lotu ziren gehienak igande goizeko 8tan abiatu ziren ezker paretatik, eta lehenak han ziren mendi gorenean 9tako. Ondotik heldu ziren pirka pirka gainerateko guziak.


Nahasmendu soberakinik ez du sortu Artzamendiko ibilaldiak Gehasto, Ortzia, Berandotze ala Latseko hauzoetan, goiti joan bezain laster behera itzuli baitira txirrindulariak.

Bazkari ontto baten inguruan bururatu da ekitaldia, kirola eta txirrindularitza zirelarik solas guzietan.

Temps superbe pour la trentaine de coureurs cyclistes qui a gravi l'Artzamendi en matinée du 24 septembre 2023.

Le projet de défier les pentes de nos collines à vélo sans assistance avait réuni la section cyclo d'Itsasuarrak et l'association des parents d'élèves de l'ikastola. La plupart des concurrents étaient partis du mur à gauche Atharri à 8 heures du matin, et les plus véloces étaient au sommet de l'Artzamendi pour 9 heures. Les poursuivants ont tous atteint l'arrivée sans jamais poser pied et en respectant chacun leur rythme.

Les routes de Gehasto, Ortzia, Berandotze et Latse n'ont pas subi trop de troubles. Tous les concurrents étaient retournés à Atharri pour le milieu de matinée. Le repas du midi à Atharri aura permis à chacun de refaire la course avec son ascension vers la lune et la dégringolade vers la vallée.



JokoLagun

Lagundu Senegaleko eskola bat eta Marokako haur batzuk Aider une école au Sénégal et les enfants dans un village au Maroc



2023ko ekainean sortu berria, JokoLagun elkarteak, behar duten herrien eta nagusiki haurren aldeko elkartasun eta elkar laguntza ekintzen antolatzea helburu duena, Atharrin 2023ko uztailaren 29an bere lehen elkartasun eguna antolatu du, jokoaren inguruan.

Giro oso atseginean, buraso eta haur taldeak lehiatu dira palan, pottoka ibilaldiak kanpoan antolatuak ziren bitartean. Egun honetako mozkinak Senegalgo M'Bourren eskola bat idekitzen lagunduko dute.

2023ko irailean, JokoLagun elkarteak mobilizatzea erabaki zuen, Maroko astindu zuen lurrikara bortitzean kaltetutako haur eta familiei laguntzeko. Irailaren 23an, jantzi eta material bilketa bat iragan da, bai eta saltegietan utzi dohaintzen dei bat ere. Bainan, laguntza humanitaria muga iragaitea trabatua delarik, JokoLagun elkarteak, arropa salmenta bat ideki du 3 egunez Balaki trinketean.

JokoLagun taldeko bi kide Marokora joan ziren urriaren hondarrean eta bertan erosi zuten, bildutako diruarekin, mendiko herri batean bizi diren familiei eta ikasleei laguntzeko behar zena (eskolako materiala, jokoak, gauratorrak, ehun bat kirol jantziak eta neguko galtzerdiak, higiene produktuak).

Bi ekintza hauen antolaketa eta arrakasta hurbiletik edo urrutitik lagundu duten pertsona guzietan eskerrak ematen dizkiegu : elkarteak, saltzaileak, emaileak, herriko etxea, bolondresak, herritarak.



Nouvellement créée en juin 2023, l'association JokoLagun dont l'objectif est d'organiser des actions de solidarité et d'entraide en faveur des populations dans le besoin et principalement les enfants, a organisé le 29 juillet 2023 à Atharri sa première journée solidaire basée sous le signe du jeu.

Dans une ambiance très conviviale, les équipes parents-enfants se sont affrontées à la pala pendant qu'à l'extérieur des balades à pottok étaient organisées. Les bénéficiaires de cette journée vont permettre d'aider à l'ouverture d'une école à M'Bour au Sénégal.

En septembre 2023, l'association JokoLagun a décidé de se mobiliser pour venir en aide aux enfants et familles sinistrés du violent séisme qui a frappé le Maroc. Une collecte de vêtements et de matériels s'est déroulée le 23 septembre ainsi qu'un appel aux dons déposé chez les commerçants. Cependant, le passage de l'aide humanitaire à la frontière étant bloqué, l'association JokoLagun a alternativement ouvert une friperie durant 3 jours au Trinquet Balaki.

Deux membres de JokoLagun se sont rendus au Maroc fin octobre et ont acheté sur place avec les fonds récoltés des articles qui ont été offerts aux écoliers et aux familles d'un village de montagne (fournitures scolaires, jeux, chemises de nuit, une centaine de survêtements et de chaussettes d'hiver, produits d'hygiène).

Nous remercions toutes les personnes qui ont contribué de près ou de loin à l'organisation et à la réussite de ces deux actions : les associations, les commerçants, les donateurs, la mairie, les bénévoles, les Itsasuar.



club des aînés

Ateraldiz ibilaldi, hemen, hor han !
Un peu toujours par monts et par vaux !



Bretaniako ibilaldiaz geroztik, azkeneko maiatzean, Idekiako kideak elgarretaratu dira :

- Itsasuko Ursumun, uztailaren 20an, krakada elkartzte baten inguruan
 - Bankako mina ziloetako xendretan, ondotik Esnazun eginez afaria agorriaren 10ean
 - Atharriko zikiroak ehun bat jende bildu zuen irailaren 28an. Eskerrak Angèle eta Andoniri.
 - Urria aldiz adinetakoen garaia. Aspe ibarreko Lourdios Ichère herrian Lassale familiaren etxaldeari bisita. Urriaren 19a, autobus handia xuhurregi izanez, autobus tiki bat gehitu behar izan da
 - Heldu den hitzordua, loto bat azilaren 15ean.
 - Eta urtea bururatzeko, biltzar nagusia abendoaren 14ean. Denak Sanoki gelaratz gomitatuak dira. 2024ko urteari pentsatzen ari gira elkartean
- Egutegia finkatzekoa izanik ere, ekitaldi hauk atxikiko dira :
- Errege bixkotxa urtarrilean
 - Matahamiak ganderailuz otsailean
 - Sagardotegirat ateraldia martxoan
 - Eta 2024ko maiatzeko aintzin ikusia da bidaia bat Kataluniarat

Depuis notre voyage en Bretagne, au mois de mai dernier, les adhérents de Idekia se sont rencontrés :

- Au Vol à voile d'Ixassou, sur les hauteurs d'Ursumu, pour goûter-rencontre le 20 juillet,
- Puis une visite sur les sentiers de la Mine à Banca, suivie d'un dîner à Esnazu le 10 août.
- Le Méchoui à Atharri a rassemblé une centaine de personnes le 28 septembre. Merci Andoni et Angèle.
- Le mois d'octobre étant plutôt destiné aux retraités, nous sommes allés en Vallée d'Aspe pour « Une journée à la ferme » chez la famille Lassalle à Lourdios-Ichère, le 19 octobre... franc succès, puisqu'un grand Bus n'a pas suffi, on a dû affréter un petit bus, en complément.
- Comme prochaine rencontre, un « Loto » nous attend le 15 novembre prochain.
- Pour finir l'année, l'Assemblée générale a été fixée au 14 décembre 2023 ; nous vous attendons nombreux à la salle Sanoki.

« 2024 » nous y pensons un tout petit peu..."

Les dates seront fixées ultérieurement, mais nous maintiendrons certainement :

- Le gâteau des rois, en janvier
- Les crêpes de la Chandeleur en février
- Sortie en Cidrerie en mars
- Et nous prévoyons un voyage en « CATALOGNE » au mois de mai.

Adhésion à IDEKIA 20€ pour l'année 2024

Renseignements : michel.iturburua@orange.fr
Tél. : 06 79 48 11 68 - 06 72 39 74 61

Repas des aînés

Cette année 2023, le CCAS et l'ensemble du Conseil Municipal invitent tous les aînés âgés de plus de 65 ans de la commune, à un repas convivial,

**le samedi 16 décembre à Sanoki
à partir de 12 heures.**

Tous en scène Gazteak taula gainean

« Tous en scène » elkarteak giro goxo eta alai batean errezibitzen ditu 3 antzezle talde :

6-12 urteko 2 talde eta bigarren urterako, nerabe talde bat ,bertan antzezle ohiak itzuli dira , ze plazerra zuen berrikustea!

Jende guzti hau astelehen eta ostiral guziz elkartzen da, ekainean sorpresa eta berrikeriz betetako antzezlari liluragarria presentatzeko.

Aurten ere Laurence eta Benjamin animatzaileek bizi araziko dute elkarte , eta Ana taldean sartu da gazteenak kudeatzeko!

Sartze on deneri eta urte bukaerako antzezlanean elkar ikusteko irrikitan gira.

La rentrée théâtrale a eu lieu le 15 septembre dernier.

L'association « Tous en scène » accueille dans une ambiance joyeuse et chaleureuse 3 groupes d'acteurs : 2 groupes enfants de 6 à 12 ans et pour la seconde année 1 groupe d'adolescents dans lequel les anciens n'hésitent pas à revenir ! Quel plaisir de les revoir parmi nous !

Tout ce petit monde se retrouve chaque semaine les lundis et vendredis pour vous préparer un magnifique spectacle plein de surprises et de nouveautés qui aura lieu au mois de juin prochain !

Cette année, l'association compte toujours sur ses 2 animateurs de choc : Laurence et Benjamin mais aussi une petite nouvelle pour encadrer les plus jeunes : Ana !

Bonne rentrée à tous et au plaisir de vous voir dans le public lors de notre représentation de fin d'année !!



Gazteen aisialdiak / activités de loisirs jeunes



Activités de loisirs du CCAS : eaux vives et grimpe !

Les 11 juillet et 18 août derniers, une dizaine de jeunes ont participé aux activités proposées par le CCAS.

Du kayak d'abord sous la houlette de l'association Ur Tipula. La bruine et l'humidité ont quelque peu refroidi les ardeurs mais cette initiation a permis à des enfants de choisir ce sport et valider leur inscription à l'association Ur Tipula dès septembre 2023.

C'était une occasion aussi d'échanger avec Edgar Paleau, un des espoirs d'Ur Tipula, présent à l'activité du CCAS. Il s'envolait quelques jours plus tard pour Cracovie en Pologne pour disputer les championnats d'Europe. Depuis, il a obtenu le titre de champion de France 2023 en kayak slalom et de vice-champion du monde par équipes.

Sous un soleil de plomb cette fois-ci, les jeunes ont pris de la hauteur et ont rejoint à pied les rochers du Mondarrain pour une journée escalade. Accompagnés par l'animatrice Marie, ils ont pu bénéficier de la grande expérience et du calme olympien de Patxi Caliot. Une aubaine ! Connaissant parfaitement le site, il a su jouer avec le soleil pour profiter de gravir les voies à l'ombre.

Merci aux jeunes de leur participation.

Adinetako en bazkaria

Sozial batzordeak eta herriko kontseilu guziak gomitatzen dituzte
Itsasuko 65 urtetik goiti duten
adinetako guziak bazkari alaitu
baterat abendoaren 16an larunbata
eguerditan

GEUZ-en aisialdi jarduerak : ur biziak eta igokariak !

Joan den uztailaren 11n eta agorrilaren 18an, hamar bat gaztek parte hartu dute GEUZ-k proposatu aktibitateetan.

Kayak lehenik Ur Tipula elkartearen gidaritzapean. Euritxoak eta hezetasunak beroak hoztu dituzte, baina hastapen horri esker haurrek kirol hau hauta dezakete eta Ur Tipula elkartearen izena eman 2023ko irailean. Edgar Paleaurekin trukatzeko aukera ere bazen, GEUZ-en aktibitatean hor zen Ur Tipularen itxaropenetako bat. Egun batzuk geroago Poloniako Krakoviara hegaldatzen zen Europako txapelketak jokatzeko.

Geroztik, 2023ko Frantziako txapeldun titulua lortu du kayak slalomean eta munduko txapeldunorde taldeka.

Oraingo honetan, berunezko eguzki baten pean, gazteek altuera hartu dute eta oinez elkartzen dira Mundarraingo harkaitzetara eskalada egun batez. Marie animatzaileak lagunduta, Patxi Calioten esperientzia eta lasaitasun olinpikoaz gozatu ahal izan dute. Xantza ! Lekua ongi ezagututa, eguzkiarekin jolasten jakin du, itzaleko bideak igotzen gozatzeko.

Milesker gazteei parte hartzeagatik.



Betizoak Itsasun

Mondarrain inguruan hirurogei bat betizo bizi dira. Basazindak dira, ez dira inorenak (res nullius) eta inguruko herriek kudeatzen dituzte (Ainhoa, Ezpeleta, Itsasu), Akitaniako arrazen kontserbatorioaren laguntza teknikoarekin eta DDPPren kontrolpean. Batzorde honen eginkizuna, bertzeak bertz, betalde horren segitze numeriko eta sanitarioa egitea da. Arreta berezia jartzen da arrisku potentziala duten eta bizi diren auzoetara gehiegi hurbiltzen diren animaliei dagokienez.

Kopuru bereko beste talde bat Xoldokogaina gailurretan bizi da, baina bi taldeak ez dira nahasten.

Abelburu horiek auroken (edo ure) ondorengoak lirateke, eta Julio Zesarrek "galien gerran" deskribatzen ditu haien ehizaldiak. Euskal kulturaren, "basa jaun" arekin lotzen den animalia mitiko bat da, eta hark bakarrik zuzenzen ahal zituen. J.M. Barandiaranek zezen gorria edo behi gorria aipatzen zuen, Marien kobazuloko sarrera zaintzen zuena.

Hexagonoan ezagutzen den basa-behien populazio bakarra da, eta, horretarako, aberastasun genetiko handikoa da.

Artalde horiek basoan pasatzen dute eguna, eta han "garbitzen" dute estraturik apalena, eta gauez ateratzen dira nekazarien pentzetan alatzen saiatzera, kexua sortaraziz heien baitan. Azpimarratzekoa da Espainia hegoaldean eta Portugalen, horrelako populazio autoktonorik ez dagoenean, bisonteen populazio bat sartu dela zuhaitzen azpiak garbitzeko, dagoeneko sentitzen dugun aldaketa klimatikoarekin garatuko diren suteen aurrean.

Behi gorrista horiek erraz ezagut daitezke, beren koloreagatik eta belarrietan identifikazio zenbakirik ez dutelako. Zezenak behiak baino larriagokoak dira. Hauek urte osoan erdi daitezke. Gizakiak hurbiltzen direnean oso azkar ihes egiten duten animaliak badira ere, ez da gomendagarria haiengana hurbiltzea ahatxekin daudenean. Arriskutsuak ere izan daitezke txahalengana hurbildu eta behiak jazarritako jabearengana ihes egiten duten loturik ez diren txakurren aurrean.

Jende gehientzat aski ezezagunak diren animalia dira hala ere, Itsasuko ondare aberatsaren parte dira, etorkizuneko belaunaldientzat zaindu behar duguna. Mitologian duten lekua itsasuarrek ere beretu behar lukete, prehistoriatik heldu diren animalia horiei buruzko ipuin anitz badirenez.



Autour du Mondarrain vit un troupeau d'une soixantaine de betizo. Il s'agit de bovins sauvages, n'appartenant à personne (res nullius) et gérés par les communes concernées (Ainhoa, Espelette, Itxassou), avec l'appui technique du conservatoire des races d'Aquitaine et le contrôle de la DDPP. Le rôle de cette commission est de faire un suivi numérique et sanitaire du troupeau. Une attention particulière est menée quant aux animaux présentant un danger potentiel et s'approchant trop des quartiers habités. Un autre groupe de même importance vit sur les sommets de Xoldokogaina, mais les 2 groupes ne communiquent pas entre eux.

Ces bovins seraient les descendants des aurochs (ou ures), dont Jules César décrit les chasses dans « la guerre des gaules ». Dans la culture basque c'est un animal mythique associé au « basa jaun » qui seul pouvait les maîtriser. J.M. Barandiaran parlait de zezen gorri ou behi gorri qui gardait l'entrée de la grotte de Mari.

C'est la seule population de bovins sauvages connue dans l'hexagone, et pour cela, il est un réservoir génétique d'une rare richesse.

Ces troupeaux passent la journée en forêt où ils « nettoient » la strate la plus basse et sortent la nuit pour essayer de pâturer dans les prairies des agriculteurs, occasionnant des mécontentements bien compréhensibles chez ceux-ci. Il est à noter qu'au sud de l'Espagne et au Portugal où de telles populations autochtones n'existent pas, une population de bisons a été introduite pour dégager les dessous des arbres en prévision des incendies qui ne manqueront pas de se développer avec le changement climatique que nous ressentons déjà.

Ces bovins d'un rouge fauve sont facilement reconnaissables, à leur couleur et aussi à l'absence de boucles d'identification aux oreilles. Les taureaux sont plus massifs que les vaches. Celles-ci peuvent mettre bas toute l'année. Même si ce sont des animaux fuyant très vite à l'approche des humains, il n'est pas conseillé de s'en approcher lorsqu'ils sont accompagnés de jeunes. Ils peuvent même être dangereux en présence de chiens non tenus en laisse qui s'approcheraient des veaux et qui poursuivis par la vache fuiraient vers leur maître.

Ces animaux assez méconnus du grand public font pourtant partie du riche patrimoine d'Itxassou que nous nous devons de préserver pour les générations futures. Leur histoire dans la mythologie est aussi à se réapproprier par les Itsasuar, de nombreux contes existant sur ces animaux venus de la préhistoire.



La réserve naturelle régionale sur Artzamendi, Iparla et Mondarrain

Epe luzeko lurralde proiektu bat da. Hainbat eragileri aurkeztu dugu EEN proiektua. Lur jabe eta eskubidedun, ihiztarien ordezkari, eta azkenik urriaren 18an mendiko alhagien erabiltzaile eta pastoral elkarteko kideekin eginek izan da aurkezpen bilkuran.

Azken herri aldizkarian aipatu bezala, Eskualdeko Erreserba Natural baten sortzearen inguruan egin ditugu urratsak.

Gogorat berriz ekartzeko, EEN edo RNR hori ondare interesa duen naturgune bat da, bere aberastasun natural, geologiko eta paisaijistikoei esker ezaguna.

Proiektua eta eremua Bidarrai, Itsasu, Ezpeleta eta Ainhoa herrietako mendietan zabalitzen da.


Arautegi baten idazteko lanaren garaia da. Herriko Etxeek baieztatu beharko dute araudi proposamena itsasuarrei bilkura publiko batean erakutsi aintzinetik.

Zenbait bitxo edo landaretan parerik ez dago Europa guzian.

Hauxe izanen dira jokoan izanen direnak :

- Indartzea ondare naturaleko elementu nabarmen zenbait : hezeguneak, oihanak, arrokarteak...
- Laguntzea eta sustatzea mendigunearen pastoral erabilpena;
- Izatea urteroko zaindari batzu beribilen zirkulazioa arautzeko, azienden presentzia segurtatzeko, eta adibidez ibiltzaileen zakurrak loturik atxikitzen behartzeko;
- Laguntzea eta moldatzea mendigunea klima aldaketarat : uren baliabideak, suen zaintzak...

Ezagutzen dugun mendiak merezi du errespetuz zaintzea nahi badugu gure belaunaldietaraino heldu diren ontasunak pasa ditezun ondoko belaunaldietaraino.



Itsasuko ondare naturala guziz aberatsa da

C'est un projet de territoire à long terme. Nous avons entamé une série de consultations auprès des différents acteurs concernés comme les propriétaires et ayants droit, les représentants des chasseurs, et enfin le 18 octobre une réunion s'est tenue avec les transhumants et membres du groupement pastoral.

Comme annoncé dans le bulletin précédent, nous poursuivons notre démarche de concertation autour de la création d'une réserve naturelle régionale.

Pour rappel, la RNR est un espace naturel d'intérêt patrimonial reconnu pour ses richesses naturelles, géologiques et paysagères.

Le projet et la zone pressentie concernent les montagnes des villages de Bidarrai, Itxassou, Espelette et Ainhoa.

Nous travaillons à la rédaction d'un règlement qui devra être validé par les communes concernées avant une prochaine présentation aux itsasuar lors d'une réunion publique.

Le patrimoine d'Itxassou est très riche et même unique en Europe pour certaines essences.

Les enjeux seront donc de :

- Renforcer la préservation des éléments remarquables du patrimoine naturel (zones humides, boisements, falaises...)
- Accompagner et soutenir la gestion pastorale du massif
- Accompagner et adapter le massif aux changements climatiques (ressource en eau, préservation contre les feux...)
- Se doter d'une présence annuelle de « gardiens » qui permettraient de réguler la circulation et sécuriser la présence des troupeaux et voire « sanctionner » les randonneurs ne respectant pas le maintien des chiens en laisse par exemple

La montagne que nous connaissons mérite d'être respectée si nous voulons que les richesses qui la composent traversent les générations comme elles ont pu le faire jusqu'à aujourd'hui.



MILIEUX AGROPASTORAUX

Tarier père

Pie grièche écorcheur

terrain de chasse important pour de nombreux rapaces

Endémique Viperé de Savoie

Urak ere zaindu behar dira

Errobi poloko 11 herriek urari buruzko egun bat antolatu dute urriaren 14an, aste klimatikoaren barne.

Baliabide arraro eta baliotsu horri buruz, jende gehien sentsibilizatzea zen helburua.

Gai horren inguruko animazioak proposatuak izan dira publikoari: ibilaldiak, galderak, standak, animazioak, Euskal herriko orkestra sinfonikoak segurtatzen zuen musika giroan bai eta ere Larresoroko Fanfarreak.

Argazki eta marrazki lehiaketetako irabazleek opari ugari jaso dituzte.



Focus sur la ressource eau

Les 11 communes du pôle Errobi ont organisé le 14 octobre une journée consacrée à l'Eau dans le cadre de la semaine climat. L'objectif était de sensibiliser le plus grand nombre sur cette ressource rare et précieuse.

Des animations autour de ce thème ont été proposées au public : randonnées, quiz, stands, animations dans une ambiance musicale assurée par l'orchestre symphonique du Pays Basque et de la batterie-fanfare de Larressore. Les lauréats des concours de photographies et de dessins ont reçu de nombreux lots.

Diru laguntza bat euri ur berreskuragailu baten erosteko

Euskal Herriko biztanle batek, batez beste, 192 litro edateko ur kontsumitzen ditu egunean. Estatuko batez bestekoa baino % 15 gehiago da.

Lurraldearen soiltasun gehiagorako, Euskal Herriko Aglomerazio Elkargoak, 2023ko uztailaren 1az geroztik, laguntza bat ireki du euri-uren berreskuratzailen erosteko. Ekipamenduen erosteko eta instalatzeko kostuaren zati bat finantzatzea ahalbidetzen du, haien edukieraren arabera.

Informazio gehiagorako, lotu esteka honekin <https://www.communaute-paysbasque.fr/a-la-une-2/actualites/actualite/une-daide-pour-lachat-dun-recuperateur-deau-de-pluie>

Une aide financière pour l'achat d'un récupérateur d'eau de pluie

Un habitant au Pays Basque consomme en moyenne 192 litres par jour d'eau potable. C'est 15% de plus que la moyenne nationale.

Pour encourager le territoire à davantage de sobriété, la Communauté d'agglomération Pays Basque a ouvert, depuis le 1er juillet 2023, une aide pour l'achat de récupérateurs d'eau de pluie. Des aides proportionnées : La subvention concerne aussi bien les particuliers que les entreprises et n'est pas soumise à des conditions de ressources. Elle permet de financer une partie du coût d'achat et d'installation des équipements, selon leur contenance.

Pour plus d'information, connectez avec le lien suivant <https://www.communaute-paysbasque.fr/a-la-une-2/actualites/actualite/une-daide-pour-lachat-dun-recuperateur-deau-de-pluie>

Udaleku

Uda leku 40 urte ospatu ditu Itsasuko Atharrin urriaren 8an

Udaleku elkarteak da arduratzen bakantza denboretan Itsasuko eta auzo herrietako haurrei aisialdiaren proposatzeaz. Berrogoi ta hamar haurretaraino biltzen ahal dira egunero Itsasuko herriko eskolan euskaraz lagunekin egoiteko eta jostatzeko. Bere 40 urteak ospatu ditu elkarteak aurtengo udazkenean Atharriko zelaian.

1983an sortu zen Udaleku elkarteak burraso multzo baten eta Seaskako erakasle batzuen nahikeriaz. Sortu behar zen giro berezi bat eskolatik eta etxetik apartekoa, euskararen erabilpena sustatzeko haurren artean. Ideki nahi ziren bestelako momentu batzuen haurren heziketa osatuko zutenak, familiarik eta eskolatik bereziak.

Itsasuko Herriko Etxea atrebitu zen 2021ean Uda Lekuri deitzaitez udako aisialdi zentro baten idekitzeko. Berehalako arrakasta ezagutu zuen gure Uda Lekuak eta deliberatu zen aisialdi zentroa zabalik atxikitzea ikasturteko oporroraldi guzietan, eguberrikoen kanpo.

Eskatzen zaiona ordaintzen du Uda lekuri Itsasuko herriak. Nekez heltzen da Uda Leku bere konduen orekatzaitez, faltan duen parte bat ematen dio Euskararen erakunde publikoak. Tirabira gorriak badira herriko etxeen parte hartzearen itzulian. Herri bakotxa ari da bere aisialdi zentroa gerizatu nahian, eta Uda Lekutarat jiten diren haurrentzat eskatua zaien diru neurria ez emanez, itolarrian ezartzen dute 40 urtez aisialdi bat baino gehiago izan den egitura, euskara sustatzea eta heziketa modelo bat lehenestea baitira Uda lekuren bi helburuak.



L'association Uda Leku assure la gestion et l'animation du centre aéré pour les enfants d'Ixassou et des communes environnantes. Uda leku peut réunir jusqu'à cinquante enfants par jour sur le site de l'école publique de la commune exclusivement pour des animations en euskara. Et l'association vient de fêter le 8 octobre 2023 à Atharri ses 40 années d'activités.

Uda Leku est née en 1983 de la volonté d'un groupe de parents et d'enseignants de Seaska. L'objectif clair était de redonner sa place à l'euskara dans les espaces de vie quotidienne des enfants qui se retrouvent pour les loisirs, hors du cadre familial ou scolaire.

La mairie d'Ixassou s'était engagée à l'été 2021 à solliciter l'association Uda Leku pour assurer le centre de loisirs en euskara qu'elle voulait ouvrir. Le taux de fréquentation par les enfants du village était tout de suite très satisfaisant, et il était décidé de proposer l'animation d'Uda Leku sur les autres périodes de vacances à l'exception des vacances de Noël.

L'association Uda Leku connaît des difficultés majeures à équilibrer ses budgets du fait en particulier que beaucoup de communes rechignent à verser la totalité de la participation qui leur est demandée pour les enfants de leurs villages qui suivent Uda Leku. Les élus d'Ixassou assument l'intégralité de l'engagement financier en plus de la mise à disposition des locaux de l'école, convaincus de l'intérêt d'un espace de loisir partagé en euskara pour les

enfants de nos écoles qui baignent déjà dans une ambiance très favorable à l'usage de la langue française.

EGUTEGIA

AGENDA

17 novembre

Kantaldi avec le groupe Bestela
chœur d'hommes - Gaztetxea
Atharri - 20h

19 novembre

Vide poussette - Atharri - 9h/17h
*Organisé par les parents d'élèves
de San Josep eskola*

26 novembre

Vide grenier - Atharri - 9h/17h
*Organisé par les parents d'élèves
de l'école publique*

3 décembre

Eguberriko merkatua
Marché de Noël
Sanoki - 10h/16h
Organisé par l'ikastola Arrokaragai

16 décembre

Repas du CCAS - Salle Sanoki

22 décembre

Kontzertua gauldia - Goxoki
Organisé par l'ikastola Arrokaragai

23 décembre

Olentzero - Plaza / Sanoki
Organisé par l'ikastola Arrokaragai

27 janvier

Amadea gauldia - Salle Sanoki
Organisée par l'association Amadea

22 février et 23 février

Don du sang - Salle Sanoki
Organisé par l'ESF

Arimen gaua

Hiru eskoletako haurrek ospatu dute elgarrekin arimen gaua/ les enfants des trois écoles ont célébré arimen gaua

Urriko azken eguna iluntzen ari zelarik Itsasuko herriko plaza bete zuten herriko haur mozorrotu guziek. Neska mutiko handienak deabruak bezain harro ziren beren maska itsusien itzalean eta ttipienak beldurtiago amaren eskuari lotuak.

Bertsuak, kantuak eta dantzak eman dituzte eskoletako haurrek Plazaren erdian berean eta Atharriarako bidean.

Sorgin dantza eta soinuak izan dira karrika nagusiaren erdian, Balakiko borobilean, Soldateneko bide kurutzean eta sugarrak Olioseneko oihaneko haitz zaharren artean.

Gauak hartu du eguna bere menpe. Beldurrak su gorritarat aurdiki dituzte. Su mihien eta pindar zalaparten itzulian dantza jauzitan loriatu dira hiru eskoletako haurrak eta haien burraso airosak.



Les enfants des écoles ont donné les bertsu, les chants et les danses préparés et accompagnés par leurs enseignants, d'abord sur la place du fronton et jusqu'au site du mur à gauche Atharri.

En soirée du dernier mardi d'octobre, la place du fronton d'Ixassou s'est remplie d'enfants du village, déguisés et masqués. Les plus grands, filles ou garçons, étaient bien fiers de camoufler leur véritable identité. Et les plus petits, moins rassurés, de rester au plus près des parents.

Des danses et des musiques à différentes étapes, au niveau de Haize Hegoa, autour du giratoire de Balaki, au carrefour de Soldatenia et un grand feu sous les chênes du parking de Biena.

L'obscurité de la nuit a pris l'ascendant sur la lumière du jour. Les peurs ont été jetées au feu. En cercle autour des flammes et des étincelles, les enfants des trois écoles, parents et enseignants ont dansé et chanté joyeusement pour célébrer Arimen Gaua avant de se retrouver tous à Atharri.



Ehun mila paper sailkatzeko



Salle du conseil

Itsasuko herriko etxeak CDG-ren esku ezarri du bere idatzizko dokumentu metaren sailkatzea, eta berex eta altxa ari da gelditu gabe Axelle Germon, 142 metra luze egiten duten paper horietarik parte bederen behar duelarik sailkatu 2023ko urrian eta azaroan.

Azken hamarkada hauetakoak dira herriko etxeko dokumentu gehienak. Badaki Axelle andereak zer behar den atxiki eta zer aurdiki daitekeen.

Bi metro t'ardi luzeko artxiba saila ginuke ixtoriari buruz baliosa. Frantziako iraultzatik bigarren mundu gerla arteko epe luzea konduan hartzen duena eta hemengo gai hau aipatzen dituenak bestek beste : mina zilo ikerketa galdetzak, xokoleta ekoizteko edo kaolin buztin baliatzeko lantegi baimenak, edo treinbidearen idekitzeko urratsak.

Une montagne de documents à classer

Un travail de mise en ordre de l'ensemble des documents de la mairie d'Ixassou a été confié au Centre de Gestion 64. Madame Axelle GERMON, archiviste est missionnée sur ces mois d'octobre et novembre 2023 pour commencer à classer les 142 mètres linéaires de documents.

Le plus gros volume de documents correspond à la production des toutes dernières décennies. Axelle est qualifiée pour trier ce qui doit être conservé et ce qui peut être éliminé.

Nous aurions environ 2.50 mètres d'archives historiques sur les 142 ml de documents qui courent depuis la révolution française jusque la seconde guerre mondiale et qui témoignent d'affaires diverses concernant entre autres les demandes d'exploitation de mines, les projets d'ouverture d'une fabrique de chocolat ou de valorisation du kaolin, et les autorisations d'exploitation du chemin de fer.

Industria eraikinak zahar berritzen Des bâtiments industriels qui font peau neuve

Balin bazen Altzuieta ekonomia eremuko eraikin bat bere 14 000m²uekin industria eraikin lauki erraldioen modukoa, Renaudin erremedio lantegia zitekeen.

Azken urte huntan, ausardiaz betetako handitzea ezagutzen du metalki hutsez egina zen lantegiak, itxura ezberdineko 260m²tuz hornitu baita Renaudin Tikoam arkitekta gazteen eskutik Michaela Korne etxekanderearen konduko :

« obra zuzendari bezala, argi adierazia ginuen gure nahikeria gutun batean, zurak baitezpadako lekua beharko zuela gure esku hartzean » adierazi dauku Tikoamko Sudre arkitekta, gehitu aintzin : « ARS Akitania Berriko Osasun zuzendaritzaren abisua harturik, zuraren erabilpena baimendua izan da eraikinaren kanpoko kuskuan, baita idekidura eta hegaztegian. Barneko altzairuetan osatu dugu mediku munduan hain arrotza zen zuraren erabilpen hori, hain baliosa delarik langune giro gozo baten egokitzeko ».



Mickaëla Korne enpresa burua eta Tikoam ko arkitekta gazteak

S'il était un bâtiment industriel de la zone économique Altzuyeta qui correspondait bien avec ses 14 000m² de surface couverte au standard des grands volumes rectangulaires en bardage métallique, c'était bien celui des laboratoires Renaudin.

L'extension de quelques 260 m² conçue par le cabinet d'architectes Tikoam pour la cheffe d'entreprise Michaela Korne a désormais fière allure. « côté maîtrise d'œuvre, nous avons posé à travers une lettre d'intention, l'usage du bois comme un prérequis de notre intervention », souligne le jeune architecte Sudre de Tikoam, avant de rajouter : « après la consultation de l'ARS, l'utilisation du bois a été validée en enveloppe, sur les menuiseries extérieures et en charpente. L'intégration des meubles a complété la variété d'usage de ce matériau atypique en milieu médical, mais oh combien indispensable à un cadre de travail confortable ».

Atzo eta egungo oihartzunak Echos d'hier et d'aujourd'hui



Peitto Duhalde hazpandarra mintzatu zaigu Ford urdinaren igan mailetan, traktur zaharrak ez baitu ezagutu landareki meta erraldoi eta konpozta ongarri ke usainez besterik. Loreki lantegia jarri zen lehenik Altzuetako ofiziale eremuan, geroago hedatuko zelarik Hastings edo Lescarreko eremuetarat. Badu lau hamarkadako ibilbidea balore azkarrak eta ekonomia garapen molde bera partekatzen duen Lorekiko lagun kuadrilla hunek.

Peitto gaurregun langile kooperatiba hunen kudeatzaile nagusi bada, ez zen oraino hastapenetako enpresa asmatzaileen taldean : « 1980 urtetan abiatu zuten abentura Zakatakaneko sukalde eta egongelaren artean. Hor bereko zenbait gazte buru ero biltzen ziren munduaren berrindatzeko eta beste ekonomia garapen baten amesteko. Kooperatibak gizon bat bozka bat nahiago langileen bizkar metatzen den kapital pribatua baino. Ximun, Marc, Alain eta bestek ikasketak eginak zituzten gehienek eta nahi zituzten asmatu bere lanbideak bertako ontasunetik eta ingurumenaren konduhan hartzetik.

Ekhindar deitu zuten elkarteak goizegi bezala begiratzen zuen iguzki indarrari. Petrolak jasana zuen 1973an krisialdi larria baina berriz nasaiki ixuria zen gure herrialdetan. Eta 1985ean Ekhindarretik sortzen da Loreki SCOPa, landarekien konpoztatze ataratzeko lanbideak. Gazte horik menturatzen dira Altzuetako eremuan lantegi baten eraikitzerat, bertarat hurbiltzen zaizkiela elgarren jarraian Fernand Agronomoa, Peitto eta Xan.

Lehen urteak aski dorpeak izan ziren : « *zuhurtziaz ibili behar zen inbestizamenduetan, dio Peittok, aintz lan oren sartu, ofizio guzietan jokatu mekanikatik saltzapenerat, beren lekua egin Suez edo Veolia bezalako mamu lodien eremu zainduan* »

Gaurregun gure herrietako 25 emazte eta gizoni eskaintzen du lana Loreki Scopak. Urte hobeak jin ziren landarekien birrerabilpenaren aldetik. Baratze, piper ala mahastizainek baitezpadakoa dute Itsasu Altzuetako onkailu enpresa. Eta Peittok dionaz, kooperatiba modeloak hazi du Loreki, behartzen baitu urteko benefizioen %45a langilei ixurtzen eta beste hainbeste lantegiaren garapenean ezartzen. Lili pollita Loreki Itsasuko iguzkitan.

L'hazpandar Peitto Duhalde nous reçoit sur le marchepied du vieux tracteur Ford bleu qui n'a connu que les piles géantes de végétaux et l'odeur des tas de compost qui fument pour se bonifier. L'usine Loreki s'était d'abord implantée sur la zone artisanale Altzueita d'Itxassou avant d'investir aussi les sites d'Hastings et de Lescar. Quatre décennies d'une histoire de copains qui partagent des valeurs fortes et une vision du développement économique.

Peitto qui assure aujourd'hui la gérance de la société coopérative ouvrière de production Loreki n'était pas encore dans l'équipe qui mûrait le projet d'entreprise : « L'aventure avait débuté au début des années 80 entre cuisine et salon de Zakatakaenia, derrière le garage Catelin d'Itxassou. Quelques jeunes du cru s'y retrouvaient régulièrement pour refaire le monde et rêver d'un modèle différent de développement économique. De la coopérative avec un homme une voix, et non pas du capital privé qui s'accumule avec le travail des ouvriers. » Ximun, Marc, Alain et les autres avaient parfois fait de bonnes études et cherchaient à imaginer leurs emplois autour de la valorisation des ressources locales et la prise en compte de l'environnement.

Leur association Ekhindar se référait presque trop tôt au potentiel de l'énergie solaire. Le pétrole avait bien subi une crise en 1973 mais il s'était remis à couler à flots. Et en 1985, Ekhindar accouche de la SCOP LOREKI qui définit son champ autour de la valorisation des déchets végétaux par compostage. Ces jeunes osent investir dans une usine sur la toute nouvelle zone artisanale Altzueita. Fernand l'ingénieur agro avait déjà rejoint l'équipe et Peitto et Xan n'allaient pas tarder.

Les difficultés du début fondent la légende des pionniers. « *Il fallait être prudent dans l'investissement, nous dit Peitto, travailler beaucoup d'heures, faire tous les métiers du mécano au commercial, se faire une place dans le domaine du recyclage qui était la chasse gardée des mastodontes comme Suez ou Veolia* ».

Aujourd'hui 25 emplois occupés par des femmes et des hommes de nos villages sur la SCOP loreki. Des années meilleures arrivèrent avec l'obligation légale de recycler les végétaux. Les maraîchers, vigneron, producteurs de piment se fournissent désormais à Loreki. Et Peitto reconnaît que Loreki doit son développement au modèle coopératif qui impose de verser presque la moitié des bénéfices annuels sur l'investissement de l'outil de production quand 45% sont reversés aux salariés. Indéniable succès de Loreki, une fleur qui brille au soleil d'Itxassou.

Atzo eta egungo oihartzunak Echos d'hier et d'aujourd'hui

Alki kooperatibak berrogoi urte Itsasun

La coopérative ALKI aura passé 4 décennies à Itxassou

1981ean sortzen da ALKI kooperatiba bost lagunek beren ideiak, indarrak eta ametsak bateratuz herrian bizi eta lan egin ahal izateko, lanbideak dibertsifikatuz eta garatuz hemen berean zuraren inguruko ekoizpena.

2017an, sartzen da ALKI Enaut Jolimou de Haraneder azkaindarra ekoizpenaren zuzendari, eta 2020ko azaroan hautatua da kooperatibaren zuzendari nagusi bezala. Helburua da lantoki berri baten eraikitzea kooperatibaren etikari doakiona, eta lantegiaren ibilmolde zintzoa jarraitzea : kooperatiba kideei lan baldintza hobekak eskaintzea, hemengo ekoizpena garatzea eta sorkuntzeri ikusgarritasuna ematea. Lantegi berria kokatzeko eremua denetan bilaturik, Larresoron jarriko da ALKI bere 44 kooperatiba kideekin.

ALKI altzariei esker laguntzen den elkarbizitza gaurkotua da

Beren kalitatearentzat, beren itxurarentzat eta beren iraupenarentzat hautatzen diren altzariak,

Oroz gainera ALKIren baloreak, lurraldea, ekologia, herri hunen jeinua....



1981, La coopérative ALKI naît du projet de cinq amis unissant leurs idées, leurs forces et leurs illusions pour vivre et travailler au pays, diversifier l'emploi et développer une production locale autour de l'univers du bois.

En 2017, Enaut Jolimou de Haraneder entre à Alki en tant que directeur industriel et est élu en novembre 2020, PDG de la coopérative. L'objectif est de construire un espace de travail en adéquation avec l'éthique de la coopérative et de poursuivre le modèle vertueux de l'entreprise : offrir de meilleures conditions de travail aux coopérateurs, développer la production locale et rendre visible les créations. Après de multiples recherches, c'est Larressore qui accueillera l'entreprise et ses 44 salariés associés.

Alki, c'est une lecture contemporaine de la convivialité exprimée à travers des meubles,

Des meubles que l'on choisit pour leur qualité, leur esthétique et leur pérennité.

C'est surtout un engagement envers les valeurs d'Alki, le territoire, l'écologie, le savoir-faire d'ici....

Itsasuko gazte asko ibili zen ALKIko langile

Peio Uhalde, Henri Eyherabide, Benat Iturralde, eta Maddi Usandisaga-k osatu zuten kooperatiba asmoa landu eta gauzatu zuen lehen talde mitiko hura. Edur Arregik lagundu omen zituen azkar hastapen hartan, bereziki merkatuaren ikertzen.

Hiru hitzez laburbiltzeko : 1981 apirilean ideki ziren ALKIko ateak herriarteak lagundurik, 1984an kooperatibaren kontrako sutea gainditu behar izan zen, 2000 urteak aintzin zuzeko altzari klasikoa bazter utzirik burdin eta beste ekaiez egin altzarigintzari lotu behar izan zen, 2007 urtetan Irazoki designerrarekin altzaritza gaurkoturat bideratu behar zen bezala.

Itsasuar gazte asko ibili zen ALKIko langile, eta bakar batzuek lan ibilaldi guziaz han egin dute. Liburu baten betea baliteke hastapen haietakoa eta 40 urtetako ibilbidea kontatzen.

De nombreux jeunes itsasuar sont passés par ALKI

Peio Uhalde, Henri Eyherabide, Benat Iturralde eta Maddi Usandisaga composaient le groupe mythique qui portait le projet de coopérative ALKI et qui amorçaient la pompe de l'usine de meubles. Edur Arregi les accompagnait fortement sur la mise en route, entre autres sur la bonne adaptation de la production avec le marché.

Pour ne retenir que trois ou quatre moments clefs : avril 1981, l'ouverture de l'usine avec l'aide de l'intercommunalité; fin d'été 1984, l'incendie volontaire provoqué par les détracteurs de la coopérative; des années 1995 à 2000, la fin du meuble rustique et l'intégration de divers matériaux comme l'acier dans les meubles, et à partir de 2007, l'implication du designer Irazoki et l'orientation actuelle vers le meuble contemporain.

De nombreux jeunes d'Ixassou sont passés par les postes de l'usine ALKI et certains y auront même fait l'intégralité de leur carrière professionnelle. Il faudrait un livre entier pour raconter ALKI depuis ses débuts jusqu'à nos jours.